28garren URTEA, 28e ANNÉE. | Nº 1424 | LE NUMÉRO : 5 CENTIMES | ORZIRALEA UZTAILAREN 31an VENDREDI 31 JUILLET | 1914

Herrialde guztietan toki onak badira;
Bainan bihotzak dio: zoaz Eskual-Herrira

ESKUALDUNA

JOURNAL BASQUE-FRANÇAIS HEBDOMADAIRE

ABONNEMENTS
Pays Basque..... 4 fr. par an.
France..... 8 fr. —
Étranger..... 10 fr —

RÉDACTION ET ADMINISTRATION : 69, rue Bourgneuf, BAYONNE
S'adresser à M. Clément MONGE, administrateur

PUBLICITÉ
Chronique locale..... 1 fr. » » la ligne
Réclames..... 0 fr. 60 —
Annonces..... 0 fr. 40 —
INSERTIONS A FORFAIT

BAKE ALA GERLA ?

Aspaldiko urthetan ez dugu Frantzian ikusi, ez eta entzun egun hautan bezen hurbildanik, egunetik biharrera leher egitekotan, gerla; eta ez nola nahikoa; menturaz egundaino Europan eta bertze non nahi ere izan den gerlarik izigarriena.

Bi populu handi, hala nola Frantzia eta Alemania, buruz buru elgarren kontra ezartzeko orde, hiru, lau, sei, zortzi, nork daki zonbat nazione, oro sutan, oro elgarren hilka, karraskan lotharazteko aiher den gerla bat; arte laburrez oraiko tresna ikaragarriekin bazterrak oro erhauts bailitzazke; guziak odoletan, usketan ezar, behingo larrutuak hobekienik geldi litazkenak, eta nork daki zonbat eta zoin sekulakotz suntsituak.

×

Gerlaren piztalea nor den, zer den, zer eta nor izan den, orotan ez bada, gehienetan, bethidanik, galda zozuete gure etsai framazon eta diren bezalako nahasi tzar horier. Ahoa bethez erranen dautzuete direla izan eliza gizon, fededun, apezak eta apeztiarrak.

Gezur bat hori, deus dakitenek nekez sinetsiko dutena; bizkitartean, erranaren bortchaz, jende cheheari asko aldiz irets-arazi diotena.

Erlisionearen etsaiek ba; ezin ikusiz begien aitzinean erlisionea, piztu dute hogoita bortz aldi gerla, pocholuz erlisionea, suntsitu, ezeztatu nahiz.

Bainan erlisionea, bereaz bera, ez da gerla piztale; kontrarat.

Bakarrik herriaren amodioa ba, herriko zuzenen zaintzeko karra ba sustatzen du, azkartzen bihotzetan, bizi atchikitzen; soldadoari altchatzen dio bihotza erlisioneak; erakasten dio bere eginbidea; gogoan ezartzen : eginbidetan den handienari, herriaren begiratzekoari ez diola behar egin uko.

Hori zeiea gaizki zonbeiti? Non litake herria? Non ginitazke oro, zoin gureaz gure, soldadorik ez balitz, ez armadarik, ez herriko zedarrien zaintzalerik? Arrotz etsaiarinork nola iharduk, zuzen kontra jazarri nahi zaukunean, edo gure lurreri, ontasuneri lothu.

×

Zuzenari esku emaiteaz eta kampoko etsaiari burutzia egiteaz bertze lanik deus ez lukete behar soldadoek.

Ahalgegarri da, bertzeak bertze, asko aldiz barneko etsaien, hemengo berekoen, herritarren larderiatzeko behartzen baitire soldadoak.

Ochala ez balitu Gobernamenduak tzarkeriako ere, hala nola fraide eta serora gaizkirik egiten ez dutenen kasatzeko beren etsai, ohointza batzuen ere egiteko, ez balitz bermatzen armadari!

Holako lan tzarrendako ez, bainan zuzenari emaiteko indar, onhartzen du erlisioneak soldadogoa; ez gerla gosez, bakea nahiz ba orotan ikusi; gaichtaginekin ez bailitake bakerik, armado on azkar baten larderia gabe.

Politikero tzarrek dute soldadogoa begietan, ohoinek eta gizon hiltzalek jandarmea bezala.

Ez direa frango koska eta chede gaichtoko gizon, gobernamendurik ere izan dadin sobera baitzeie; oro ororen nausi, edo nehor nehoren; bakotchak nahi duena egin, nahi ez duena ez ... hobeki ginitazkela baiterasate. Nik uste ba, jou!!!

×

Erlisionea gerla piztale! Haren etsaiak bakezko gizon! Itchura du ba! Ez direa egitateak hor, lekhuko?

Lurden izan bazinete iragan astean, hanche ikusiko zinuten ez denez erlisionea bakearen alde.

Aditzekoak ziren, harat bilduak, han mintzo gizonen, gizon guzien, bereziki giristino guzien arteko bakeaz, batasunaz, aneiatasunaz, Apezpiku bihotz handidun batzu : angles, italiano, amerikano, rusiano, ba eta urrunagoko.

Goraki zioten beren mintzaldi ederretan aldizka orok: oro elgarren haurride girela mundu huntan; orotako haurridenik, gu kotolikoak.

Hanitzi begiak busti ere zaizkote, gerlazko burrumbaz oro betheak diren egun hautan, hanche Lurderat jina, han mintzo, *Cologne* hiri handiko aleman apezpiku bat, boza ikaratzen zitzaiolarik eta bihotza pil-pil ari — aise ageri omen, zinez mintzo zela — « Zertako ez ginuken behar elgarrekin bakea, bake osoa, katolikoek bederen katokoekin, edo zoin herrialdetako izanik ere ?

Hunkigarriak omen ziren Lurden aleman buruzagi katoliko baten ahotik bakezko, elgarren amodiozko elhe hoik iragan astean.

Bizkitartean geroztik oraino are lazgarriago doazi gerlazko chimitchtak eta ortziak.

Agian Jainkoak eta Ama Birjinak entzunen dituzte Lurden, Aita Sainduaren ordain han zen kardinale buruzagiak egin-arazi dituen othoitz kartsuak, bakearentzat.

Diraukula bakeak. Jainkoak beira gitzala gerlatik !...

ASTEKO BERRIAK

Auzia

Azkeneko aldian aipatu auzia, joanden aste guzia iraun ondoan, ez da oraino bururatua, nik hitz hauk izkribatzen ditudalarik. Agian, bertze norbeitek erranen deutzue nola bururatu den; ezen nik, berri hori jakin orduko, ene lan hau egorria izanen dut moldetegirat.

Harrigarri da, zer itsuskeriak, zer zikinkeriak higitu eta barraiatu diren auzi hortan. Eta mintzatu dire Asisetako barnean *Caillaux* ministro ohiaz, horren emazte ordeaz bezenbat bederen. Ikusi izan da eta frogatu, zer bilaketua den ezkontza Frantziako legeen arabera, eta nola dakiten *Caillaux* bezalako gizonek, lege tzar hoiek eman errechtasunez baliatzen. Irakurtu dituzte han letra batzu, jaun horrek izkribatuak, ezin gehiago ahalgegarriak. Bera irriz zagon, hoik irakurtzen zituztelarik.

Hoik guziak kazeta egileek errepikatu dituzte, eta barraiatu bazter guzietan. Zueri edo niri holako zerbeit gertatu balitzaiku, laster ihes egin ginezake ezagutuak ez garen toki batzuetarat. Bainan *Caillaux* ministro ohia ez da hoinbertzetaraino kilika. Bakartasunean eta ichilik kofesatzen baliz, behar bezala, apez bati, ez zuen naski entzunen bere kofesioa hola egina goraki eta mundu guziaren jakinean.

Ez da ez hortako ihesi joanen; ez du ez bere deputatu kargua horren gatik utziko. Parisen egonen da, deputatu geldituko da, eta ez du galdua berriz ministro bilakatzeko gogoa eta ustea. Berdin badaki, bere inguruetan dituen jaun handi hoik gehienak ez direla hura baino hainiz garbiago.

Caillaux horren emazte ordeak bere ahalak egiten ditu jujeen enganatzeko, edo bederen beieri bihotzaren atzemaiteko. Sinhets-arazi nahi luke, hil duenaren ganat etorria zela deus chede gaichtorik gabe, gero horren aitzinean burua galdu duela, eta ustegabetan hil. Nigar egiten du ausarkian, eta behin alditchartu da.

Zerbeit bat behinere holakoetan ikusi edo entzun ez dena orai arte : bi juje elgarri jazartzen auzi batean. Badakizue, auzia Asisetan delarik, hortako hautatuek behar dutela [illegible] anzia egiten zaiona hobendun den ala ez. Bainan hamabi gizon hoiekin batean badire tribunaletako hiru juje . bat, nausia, auziaren bidatzeko chuchen; bertze biak, horren lagun. Nausiak, auzia chuchen bidatzeko orde, sobera agertzen baitu *Caillaux eta Caillausaren* adiskidea dela, bere lagunetarik batek erran dio . « Ahalge-arazten gaitutzu ».

Hortarik, auzia bururatu ondoan, *duel* bat izanen omen da bi juje hoien artan.

Lurdetik

Joanden astean egin da biltzar handi bat Lurden, Gorputz Sainduko Sakramenduaren ohoretan. Biltzar horrek iraun du asteazken goizetik igande arratseraino.

Aita Sainduak bazuen, bere orde, kardinale bat Erromatik harat egorria. Bazirren ere hor, mundu zabaleko bazter guzietarik etorriak, bertze bederatzi kardinale, berrehun bat apezpiku, zortzi mila apez, eta ehun bat mila fededun, bereziki igandeko egunean. Ez omen ziteken deus ederragorik, eta ez da behinere hoinbertzetaraino kilika. Bainan hamabi gizon hoiekin batean badire tribunaletako hiru juje . bat, nausia, auziaren bidatzeko chuchen; bertze biak, horren lagun. Nausiak, auzia chuchen bidatzeko orde, sobera agertzen baitu *Caillaux eta Caillausaren* adiskidea dela, bere lagunetarik batek erran dio . « Ahalge-arazten gaitutzu ».

Hortarik, auzia bururatu ondoan, *duel* bat izanen omen da bi juje hoien artan.

Lurdetik

Joanden astean egin da biltzar handi bat Lurden, Gorputz Sainduko Sakramenduaren ohoretan. Biltzar horrek iraun du asteazken goizetik igande arratseraino.

Aita Sainduak bazuen, bere orde, kardinale bat Erromatik harat egorria. Bazirren ere hor, mundu zabaleko bazter guzietarik etorriak, bertze bederatzi kardinale, berrehun bat apezpiku, zortzi mila apez, eta ehun bat mila fededun, bereziki igandeko egunean. Ez omen ziteken deus ederragorik, eta ez da behinere hoinbertzetaraino kilika. Bakartasunean eta ichilik kofesatzen baliz, behar bezala, apez bati, ez zuen naski entzunen bere kofesioa hola egina goraki eta mundu guziaren jakinean.

Ez da ez hortako ihesi joanen; ez du ez bere deputatu kargua horren gatik utziko. Parisen egonen da, deputatu geldituko da, eta ez du galdua berriz ministro bilakatzeko gogoa eta ustea. Berdin badaki, bere inguruetan dituen jaun handi hoik gehienak ez direla hura baino hainiz garbiago.

Caillaux horren emazte ordeak bere ahalak egiten ditu jujeen enganatzeko, edo bederen beieri bihotzaren atzemaiteko. Sinhets-arazi nahi luke, hil duenaren ganat etorria zela deus chede gaichtorik gabe, gero horren aitzinean burua galdu duela, eta ustegabetan hil. Nigar egiten du ausarkian, eta behin alditchartu da.

Zerbeit bat behinere holakoetan ikusi edo entzun ez dena orai arte : bi juje elgarri jazartzen auzi batean. Badakizue, auzia Asisetan delarik, hortako hautatuek

Gerla ?

Egun hautan berria da, oraikoan gerla dugula, eta laster. *Poincarré*, gure Errepublikako jaun Présidenta, Rusiatik itzulzean, izan da Suediako hiri - nausian. Bainan, gero etorri da berchala Frantziarat, Norvegako eta Danemarko hiri nausietarat joan gabe, chedea zuen bezala. Izkribatu diote bi erresuna hoitako errege-eri, sartu behar duela lehenbailehen Frantziarat, gerlazko dichidu handien gatik, eta joanen dela heieri agur egiterat bertze aldi batez, ahal duen bezen laster.

Huna zer gertatzen den. Orhoit zarezte nola, orai duela ilabethe bat, hil zuten Autrichiako emperadore zaharraren iloba, horren ordotik emperadore behar zena, bere emaztearekin. Hango poliza miatu da nola gertatu den izigarrikeria hori, eta huna zer duen atzeman . Serbiatik etorriak zirela hilzaileak, eta handik bazituztela laguntza handiak, bereziki kargudun andana baten ganik.

Froga hoik bildu ondoan, Autrichiako gobernamenduak egorri diozka gelde batzu Serbiakoari, gerlaz dichidatzen duelarik, ez baditu onesten bi egunik barnean. Serbiakoak onetsi ditu, ez guziak, bainan gehienak. Orduan Autrichiak kendu du Serbiatik bere embachadorea, eta egorri Serbiakoa Autrichiatik kampo.

Ez dakigu oraino eia gerla hasiko den.

Bainan heien artean hasirik ere, nola beldur izaiteko dugu Frantzian? Huna zegatik.

Nola Autrichia Serbia baino hainitzez handiago eta azkarrago baita, leher dezake errechki. Bainan Rusiak erran du, lehertzerat utzi baino lehen, Serbiaren alde emanen dela. Rusia hola guduan sartzearekin, Alamaniak hitzeman du bere soldadoak egorriko dituela Autrichiaren laguntzerat. Orduan Frantzia ere bortchatua da bere adiskide Rusianoekin bat egiterat.

Ikusten duzue, zer dichiduen erdian garen. Jainkoak beira gaitzala gerlatik!

Eskualdunak Lurden

Iragan dire *Lurde*-ko phesta choragarriak.

Sakramendu Sainduaren ohoretan bazen horrat bildua jendeketa gaitza, mundu bazter guzietarik, igandean bereziki, auzo herri hirietarik trumilka jautsi baita jendea azken prosesione handiaren ikusterat.

Ez zaiote dolutu, holakorik ez baitzuten gehienek ikusi egundaino, ez eta ere berriz ikusiko.

Urthe guziez egiten da nunbeit gisa hortako bilkhura handi bat, lau bortz egun irauten duena, Sakramendu Sainduaren ohoratzeko. Mintzaldi ezin ederragoak entzuten dire, eta gero, igande aratsean atheratzen da prosesionea, oro gizonak, milaka eta milaka, bi, hiru orenez karriketan barna dohazila kantuz.

Emagun Eskual Herriko adorazione bat, ehun herri batetarat bildurik, kampo zabalean, bere prosesione eta kantu miragarriekin . , holakotsu zerbeit ikusi dugu, edo hobeki erraiteko, ikusi dugu hori baino hainitzez ederragorik.

Berrehun apezpiku, hamar kardinale, ororen buruzagi kardinale bat Aita Sainduak bere izenean eta bere ordain igorria, eta gero milaka aphezak, muthiko gazte, gizon langile eta jaun handi, deputatu, mediku eta bertze.

Han ziren gure bi deputatuak, *Gaichenne* eta *Ybarnegaray*, biak beren deputatu seinaleak soinean; prosesioneari jarraiki dire beren lagun andana batekin.

⁂

Ba othe zen bertze Eskualdunik?

Bai, frango, eta hitz dautzuet ageri zirela...

Arrats guziez, elgarretarat bildu dire, Andre dena Mariaren kantuen emaiteko. Bizpahiru kantuz hasi orduko ,pir-pir-pir heldu ziren bertzeak bazter guzietarik, nausi baita kantu Eskualduna bertze guzien artean, beharrien atzemaiteko, eta oren laurden baten buruko jende guzia choratua zagon beieri so.

Lehen aratsean, ez ginelarik oraino hitzhartuak, apez eskualdun bat kantari batzuen aldetik iragaitearekin, zioen bere lagun bati : « Hauche dire boz hitsak! Beude Eskualdunak nausi! « Urruntchago bertze batzu kantuz ari ziren . « Ori, hortchet badire bozak... Horiek dire, horiek ,bozak! Dugun ikus nungoak othe diren? « Nurgoak? Eskualdunak!

Ba, naski!

⁂

Kantuz bertzerik ere egin dute; bertze nehork ukhan eztuen ohorea egin diote Eskualduneri Aita Sainduaren ordainak. Kardinale horren lagun Aita Sainduak berak hautatua zuen beila dembora guziko Eskualdun bat ,Legasse jaun apeza ..

Huni esker, eta Bezkoitzeko erretorari, kardinaleak onhartu du Eskualdunen bisita bat larumbat aratsaldeko bi orenetan.

Oren laurdentto bat elgarrekin egon gira. Legasse jaun apez buruzagiak erran dio Eskualdunek zer amodioa daukaten bihotzean Aita Sainduaren alderat, eta Aita Sainduak zer hautu ona egin duen hura bezalako bat izendatu duenean bere ordain, phesta eder hoieri buruz. « Ez ez, dio orduan kardinaleak irri gocho batekin; ez diogu hortaz erran behar milesker Aita Sainduari, bainan bai zeren duen hautatu nere lagun eskualdun bat! »

Belhaunikaturik, guziek erreztunari musu egin diogu, Aita Sainduaren benedizione hartu ,eta bisita hortarik jali bozkario handi batekin.

⁂

Azken arratseko bilkhura, guzietarik ederrena, hunkigarriena, ezin ahantzizkoa.

Halako munduaren artetik elgarretarat heltzeak bazituen lanak. Ezin elgar atzemanez bi tokitan hasi ginen kantuz, noiz eta ere jakiten baitugu berria, gure bi deputatuak han ginintuela; behar ginela guziak bildu!

Besoz besö, indarka, zeiharka bidea idekirik, horra nun giren azkenean guziak elgarrekin, gure bi deputatuak erdi erdian. Piba Guichenne, biba Ybarnegaray biba Eskualdun deputatuak, biba Eskual-Herria!

Zer oihuak, eta gero zer kantuak! «Jainkoaren ama, ama guziz ona,

« Zaitzagun maita, Bethi bethi! »

Ybarnegaray mintzatu zitzaukun zenbeit hitz labur eta hunkigarriz : oren beltzean ginela, gerla harrabots izigarriak altchatzen ari direla bazter guzietan... ez dakigula geroaren berri, eta beraz othoitz egin ginezan Andre dena Mariari, othoitz, bakea luza dezan... eta Jainkoak bertzela nahi balinbadu, guziak prest izan gitezen egin behar denaren egiteko.

Semenario ttipiko Superiorari, bere lehengo eskolatzaile maiteari galdatu dio egin zezan othoitz hori guziekin gora. Agur Maria bat, Eskualdun guzien izenean Frantziarentzat.

⁂

Othoitz eta kantu egin dugu bihotzetik; milesker gure bi deputatu giristinoeri, eman daukuten etsemplu ederraz; geroak zer ekharriko daukun ez takigu, bainan holako gizonekin gauden bethi Eskualdun fededun!

SOLDADO-GEIEN ERRETRETAK

Jaz bezala izanen dire aurthen ere eskualde hautako gizon gazte soldado doazinentzat erretretak; hiru eskuaraz, bat frantsesez; hiru eskuarazkoak,, *Maulen, Hazparnen, Donibane-Lohitzunen*. Azken hiri hortan berean, berech, azkenik, frantsesezkoa. Orotara lau erretreta.

Maulera bilduko dire : Chuberoko bi kantonamenduetarik eta Bachenabartar Maule hurbilago dutenak, Hazparne baino.

Hazparnera : Donibane-Garaziko, Baigorryko, Iholdyko, Hazparneko lau kantonamenduetarik.

Donibane Lohitzunera : behin eskuarazko, gero frantsesezko bi erretretarik batera edo bertzera . Donibane-Ziburuko, Ezpeletako, Baionako kantonamenduetarik.

Orai danik erran dezakegu, lehen erretreta emana izanen dela Maulen, buruilaren 5, larumbat arratseko zortzietan has eta ondoko asteart goizeko zazpietan fini.

Bertze hiruak noiz? Lehenbailehen jakin-araziko dugu: ba eta oroz batean emanen jakiteko diren chehetasunak.

Jaun Erretorek bilduko daizkute othoi ahal bezenbat gazte hoitarik erretreta hoitarat, norat ere baitire behar, harat lehiaraziz; kompreni-araziz, soldadogoari lotzeko, zer egin, zertarik begira beren buruak; jakiteko, ja orai bereko eta are gehiago geroari buruz, ongi handia eginen diotela orori erretretak.

Lehenbailehen bil ditzatela erretorek izenak; ez dudazkoak; segurek, eta hel izen hek, Mauleko : *Cazaban*, hango jaun apezari; Harpaneko : *Larregain* jaun misionestari.

Donibane-Lohitzuneko, ba eta nahiz, bertze bi goragoko tokietarako ere (Hazparne ala Maule), *Elcheber*, Baiona Sant-Andreseko jaun bikariari.

Jazko erretretak ontsa joan ziren ; agian aurthengoak are hobeki dire joanen. Jazkoak, itsura bildu ziren, lehen aldia zelakotz; aurthengoak, jakinean, konfiantza eta khar gehiagorekin dire bilduko.

Zer nahi gertha, gerla edo bake, arima eta gorputz, argituago, azkarrago joanen dire hor harat gure soldado-gei maiteak.

Berrichkak

FRANTZIAN

ARGI PHIZTEAN ERRE.

Seyssel-eko herrian hamasei urtheko neskatcha batek, alkolazko lampa baten phizten ari zelarik, uste gabetarik su eman dio ur lanjerosari.

Lampak zapart egin eta su-lamak arropetan goiti lothu zaizko.

Laguntza guzien gatik, izigarriki zaurthua gelditzen da nechka dohakabea eta diote nekez atheratuko dela.

BALONA LEHERTU.

Paris-en primak ziren balon erabiltzalentzat.

Bederatzi balon airetan joanak zoin geihago gora, hamargarrena aldiz arbola adar mutur batean kokaturik zilhatu.

Duval eta *Blanchet* chori gizonak harrie bezala tumpan eroi *Tuileries* deithu baratze choragarri ba[illegible] gainera.

Oraino ez dire hilak.

HIRUR HAUR SORTIDU

Ain-eko departamenduan emazte batek mundurat eman ditu hiru muthiko ederrak eta hirurak osoki elgar iduriak. Bat bertzetik ezagutzeko, trotchetan eratchiki diote bedera chingola gorri, churi eta urdin.

Ama on horrek bazituen jadanik bederatzi haur.

Herrian egin dute besta bat gaitza haurreri buruz eta bildu dituzte lau ehun libera familia beharrarentzat.

BOZKATZEAZ AGHOLA GUTI.

Bordalen hautatu behar zuten « Conseillers d'arrondissement » direlakoetarik bat.

Hamar bat mila bozkatzaletarik laurden bat ere ez da bozkatu eta hola ez aski, izendatua izaiteko.

Beraz berriz bozkatzekotan dire.

OHOIN LAN

Hiru muthiko tzar ari ziren gerezi ebasten bazterretche batean.

Etcheko muthila joaiten zeie zizpa bat eskuan harturik.

Hirnek lasterrari eman dute, bainan baño, hamazazpi urtheko putil bat, *Lucien Guly* etzen bertzeak bezen zalu.

Ikustearekin muthilaren menean zela, itzuli-ta jazarri zaio eta errebolber ukaldi batzuz bulharretan kausitu du.

Gure muthila bats-bizi ereman dute eritegirat.

Gachtagina ihes eginik harrapatua izan da, eta itzalean ezarria.

UHALDE BATEN PARE

Paris-etik *Marseille*-rat deraman burdin bidean, *Moaane*-ko ondoan uhaitzak

gaindi egin du : bazterrak urez estalirik daude.

Garako hamabortz bat suzko mekanika doi-doi ezagun dira; bidetako burdinak urak harroturik berekilan ereman ditu.

Asko lekhutan ura igana da lehen esteraino. Entzuten dire jende dohakaben heiagorak eta nigar marraskak.

Hola preso eztirenak badohazi haurrak besoetan ihesi.

Italia-tik heldu diren piaiantak ez dira aitzina joaiten ahal.

ESPAINIAN

AIREPLANAK LEHERTU

Avaro chori gizona lurrerat jausten ari zelarik erori da jendez betherik zohan orga baten gainerat; zazpi kolpatu ditu eta haur bat hil.

Puicerda-ko ondoan bide egiten ari ziren langile batzu lurrak leher eginik, bere pean hartu ditu : lau atheratu dituzte bizirik, hilak bertzalde.

BELGICAN

BERIBILA SUNTSITU.

Louvain-etik burbil,beribil bat chimichta bezala zohalarik, bihurgune batean orga pare bat oldar gaitzian kaskatu du.

Zeramatzan lau presunak itzuliphurdika joan dira bide bazterrerat.

Hetarik bat *Franizian* eta *Belgikan* ezagutua zen theatroetako « *actrice* » bezala. Altchatu dute abantzu hila : auzo hurbileko ostatu batean ezarririk, hatsa eman du oren bat gabe.

Bertze hiruek ez dute gerokorik.

BULGARIAN

URAREN DESMASIAK.

Eskualde hortan ere erauntsi gaitzak egin ditu.

Ehun bat jende urean ithoak atheratu dituzte eta bada hamar bat miliunen desmasia bertze gainerakotan.

AZKEN BERRI

Ortzegun eguerditan gira. Bake ala gerla? Zertara goazin dakiena ichilik dago. Depecha depecharen gainera heldu; egia batentzat : hamar gezur. Gehienak deus jakin gabe mintzo.

Bakarrik segur dena da Europa guzian, edo bederen guri doazkun tokietan gerlazko su bat izigarriaren lotzeko hirriskuan girela.

ZER ETA ZER

Caillausa

Ez bide dugu ematzar huntaz, eta hunen bethe den edo areagoko senharraz, mila solas egitekorik izanen gehiago.

Azken uztarrak aste huntan zituzten, ba eta azken gezurrak.

Ororen buruan hau da berri, oro dauzkana; hau *Asteko Berrien* egileak egungo *Eskualdun* huntan diona, berak ezin emanezko azken berria, bertze norbeitek ondarrean emanen ahal dugula hemenche, huna : *akitatu dute emazte* zantzail gizon biltzalea.

Akitatu

Holetan Pariseko *jure* eta *jujek*, bospasei bala odol hotzean tiroka sarthurik senharraren etsai gizona hil duen emaztea ezarri dautzute diren bezalakoak elhurra bezen churi.

Lephoa moztea merezi zukenari ez diote oren baten presondegirik ere eman.

Ez denez ahalgegarri! *Caillausak* errana, gizon hura hil eta berehala preso hartu zutenean . ez dela gehiago Frantzian justiziarik ,horra non den egia. Ministro eta ministrosa izaitea holetan aski; zer nahi egin eta deusen beldur ez izaiteko.

Egia zuen Caillausaren senharrak, zionean : « Lehenik deputatu sarthuko naiz, ene Madama preso izanik ere; bigarrenekorik ene Madama tribunalak akitatuko du ».

Hara non den Jauna deputatu, eta ez etsitzekotan, sarrichago berriz egundainokoetan ministro izaitea.

Zertako ez Errepublikako Prezident?

Hara non den Madama oilategiko haga bezen garbi ; ez hatik itsura haren churitzalek eskuak ontsa eta ontsa oilo ongarriz emokatu gabe.

Ez dute kilika barnea!

Egundaino izan den odol ichurtzerik, gizon hiltzerik ageriena, ezin ukatu, ez eta ezin gordezko krima, holetan deus ez krima!...

Zer da beraz krima ? Krima non da? Krima noiz da?... hor ez balinbada?

Estakuruak

Irriegingarri litake, okaztagarri ez balitz, nolako estakuru kakolak athera daitzuten,Caillausak bortz edo sei tiroz kalitu gizonaren hiltzea emaiteko, batzuek medikuen gain, bertzek hilaren beraren, *hala-beharraren* edo nik dakita zeren eta noren?

Doyen delako mediku « *chirurgien* » aiphamen gaitzeko bat, charlatan hutsa, deithu dute, Jainkoak ahal baitaki zonbat emanik lan hartako . erran zezala zer zitzaion.Erràn du : gizona bere kolpetarik etzela hilen, arthatu duten medikuek ez balute hiltzerat utzi malestrukeriaz, edo berek hil arazi, ez aski fite ikerturik zauriak.

Egundaino ez bide da nehon gerthatu kriminel batek norbeiti puñala sarthu edo bizpalau bala gorputzean, eta erraitea *Caillausak* ziona : « Eztut nik hil. Nik kolpatu-ta bizi zen oraino; biziko ere zen; medikuek dute hil, gaizki arthatuak.

Ematzarraren senharrari gogoratu bide zaio estakuru buru buztanik gabeko hoi.

Berek atheraldi horren botatzea, paso, jaun-andere ahalge-gabeek ; bainan mediku izen handiko bat hoin aphal jaustea, bere burua desohoratuz?... Hori dorphe da.

Gehiago dena, hor agertu da soldado aitzindari bat, ez edo zoin; kolonel bat, s'il vous plaît, espert bezala deithu dutena, erran zezan, tiroak nola dezaken gizona hil, nola ez.

Alegia ehun begi-ukaldi, eskukaldi emanik, eta mila gogoeta eginik, ihardetsi du jujen aitzinean : « Ez palitz *Calmette*, hil den hura, kurtu, makurtu tiroaz eman dionean Caillauteiko etchekoandereak... hunek beheiti emaitean tiroa, — ez baitzuen hil nahi—chut egon balitz,ezpalu jautsi bere burua, beheititu balaren bidera, etzela kolpatuko; eztela bala joan hari, bainan ba balari hura bera.

Caillautiarrek bibaka, esku zartaka daitzute hartu holako atheraldi zikiteak; zentzurik zuten guziek irri karkaraz eta trufaz, huiaka.

Hoien gainera zer uste duzue duela egin *Caillaux* debruz egin, emaztea baino tzarragokoak?

Ministro zelarik bere eskuko ukanak zituen paper batzu athera-arazi ditu; hetarik bat, *Calmette* hilaren testamenta. — Zertako? — Aberatsa zela hil hori erakusteko; berritan aberastua; bazituela 3 milium, *Chauchart* zenak utziak, (hanitzi hanitz utzi zuen bat baitzen); 8 miliun, bertze adichkide baten ganik; bertze bi edo hiru, berak eginak bere burutarik ,lan edo zerbeitetarik.

Egia edo gezur, Caillautiarren arabera gizon aberats baten hiltzea deus ez da; edo gutiago da, errumes batean hiltzea baino.

Zer da, Caillaux bera probea naski? Itsura ba!

Jali ez duten astokeriarik ez da, jakinkiz araiz, *jureak* zoin astaputzak diren.

Diruz erosi ez badituzte hor hamabi Paristar gizon hitsak, zozo batzu bezala dituzte balakatu.

Phhh!... Dugun har hatsa. Usteldurak itho behar gaitu holako aulimalekin.

Hunen gainera baginu gerla, usain onik baginuke bazterretan.

Esku onetan dugu ba Frantzia, holakoekin!

FONTARABIE

Filles de la Croix direlako Uztaritzeko Serorek hor badute eskoletche bat berriberria, Bayonako Jaun Aphezpikuak aurthen benedikatua.

Erran gabe doha eskola hori, Uztaritzeko Pentsione ohia bezala, gain gainetik giristinoa dela eta, bertze gauzetan ere, ez duela nehori zorrik.

Bertzalde, bada hor, 15 urthe betheak dituzten haurrentzat, *enseignement ménager* erraten dakoten eskola berezia, etcheko gobernu, garbitasun, kozina eta holako ikasteko.

Uste dugu beraz Eskual-Herriko burhasoek hor badutela beren alaben *gisa guziez* ongi altchatzeko errechtasuna. Eskolak hasiko dire Urriaren lehenean.

Jakin behar diren chehetasunak galda Serora Superiorari, edo gan ikusterat. Ez da piaia alferra izanen.

LAPURDI

MIARRITZE

Heriotze supitu bat hemen. *Gadeano Donalo* deitzen zuten español bat, Miarritzen zagona aspaldichkoan, etcherat heldu zen karrosan Angelutik. Miarritzerat orduko, barnean senditu du zerbeit eta berchala, erremedio bat nahiz, sartu da botikarioan.

Deithu dute medikua, zer zen ikusteko. Bainan hau ethorri gabe Donato gaizoa gorputz zen. Jainkoa urrikal dakiola.

BIRIATOU

Hemengo haur bat ur handirat erori da uste-gabetan, duela zenbeit egun. Aitarekin zen. Haurra itho behar zitzaiola ikustearekin, aita hasi da oihuka. Cihuak entzunik, laster egin du *Manuel Ilhardoy* gure herritarrak,eta,biluzteko astirik hartu gabe, salto egin urerat. Zazpi zortzi metra ondo badire leku hortan. Halere ithotzerat zoan haurra salbatu du Manuel Ilhardoyk. Ez errechiki hatik. Biba Manuel !

HENDAYA

Aferetan makur zoalakotz, denek diotenaz, *Pablo Amunarriz* españolak, bi zangoak zintarekin ongi estekaturik, bere burua Bidassorat botatu du. Eta hor itho da. Agian dohakabeak izan du, itho aintzinean, bere baitan sartzeko astia.

USTARITZE

Phesta ederrak izan ditugu aurthen nahiz denborak ez dituen hala lagundu. Jendea bildu da ausarki, guziz astelehenean; goizean konkurreko aratsaldean partidako. Konkurra ikustekoa zen. Zer migak! Zer behiak! Zer zezenak! Batzu bertzeak baino pollitago!

Eta gero arratsaldean zer partida! Hendaiar horiek zer pilotariak eta nola dabilkaten pilota! Eta futcho halere *Harambillet* eta *Puchanlek* partida irabazi! Biba zuek to !

LARRESSORO

Igandean bezperetarik lekora jokatu da Intalatzeko plazan pleka partida bat ezin ederragoa. Buruz buru, *Leonis* Ezpeletakoa gure herritar *Pezoinburu*-ren kontra.*Leonis* nausitu da, zazpi kintzez. Diote gure heritarretarik zenbeit kopeta zimurrik itzuli direla etcherat. Zertako othe?

FAITES RÉPARER VOS ARMES
avant l'ouverture de la chasse
Léon BARTHE
Armurier-Spécialiste
Rue Gambetta :: BAYONNE

Comice Agricole d'Ustaritz-Espelette

CONCOURS D'USTARITZ

(*Suite de la Distribution des Prix*

Prix d'Honneur

1er, 50 fr., offert par M. Gaston de Laborde-Noguez, vice-président du Comice, pour la plus belle bête de l'espèce bovine section des mâles, décerné au No 4 appartenant à M. Eliceiry Salvat, d'Ustaritz.

2e, 50 fr., offert par M. le docteur Juanchuto, vice-président du Comice, décerné au No 36 appartenant à M. Hirigoyen Jean, d'Ustaritz.

3e, 50 fr., Prix Michel Daranatz décerné au No 43 à M. Eliceiry Salvat, d'Ustaritz.

Ces deux derniers prix ont été attribués aux deux plus belles bêtes de l'espèce bovine, section des femelles.

4e, 50 fr., offert par M. Nicolas d'Arcangues, président du Comice, pour la plus belle bête de l'espèce chevaline, décerné au No 5 appartenant à M. Estrade François, d'Ustaritz.

ESPECE OVINE

1re section. – Mâles.

1er prix, 15 fr. et une médaille de bronze offerte par la Société d'Agriculture des Basses-Pyrénées au No 1 appartenant à M. Noblia Salvat, d'Espelette.

2e prix, 10 fr., au No 4 appartenant à M. Massonde André, d'Itxassou.

3e prix, 5 fr., au No 3 appartenant à M. Famatan Anicet, d'Ustaritz.

2e section. — Femelles.

1er prix, 15 fr. au lot No 9 appartenant à M. Massonde André, d'Itxassou.

2e prix, 10 fr. au lot No 8 appartenant à M. Dioné Pierre, d'Espelette.

3e prix, 5 fr. au lot No 7 appartenant à M. Nobliat Salvat, d'Espelette.

ESPECE PORCINE

1re section. — Mâles.

1er prix, 20 fr., au No 1 appartenant à M. Iceder, Jean, d'Itxassou.

2e prix, 10 fr., au No 2 appartenant à M. Molérès, Jean, d'Espelette.

2e section. — Femelles.

1er prix, 20 fr., au No 4 appartenant à M. Hirigoyen Pierre, d'Ustaritz.

2e prix, 15 fr., au No 5 appartenant à M. Samson Martin, d'Ustaritz.

3e prix, 10 fr., au No 3 appartenant à M. Dioné Michel, d'Espelette.

ANIMAUX DE BASSE-COUR

1er prix, 5 fr., à Mme Dioné Michel, d'Espelette, pour son exposition de volailles et de lapins.

2e prix, 5 fr., à Mme Larre, d'Espelette, pour son exposition de volailles et de lapins.

3e prix, 5 fr., à M. Pérony, pour son exposition de poules.

4e prix, 5 fr., à M. Ambulant Désiré, pour son lot de lapins.

5e prix, 5 fr., à M. Iriquin, d'Ustaritz, pour son exposition de volailles.

6e prix, 5 fr., à Mme Duhalde Marthe, pour son exposition de canards.

7e prix, 5 fr., à M. Laborde, d'Ustaritz, pour son lot de poules et coq.

8e prix, 5 fr., à M. Darlas Joseph, d'Ustaritz, pour son lot de volailles.

9e prix, 5 fr., à Mme Intcausty, d'Ustaritz, pur son exposition de canards.

10e prix, 5 fr., à Mme Negueloa, de Halsou, pour son lot de poules.

PRODUITS AGRICOLES

1er prix, 10 fr., à Mme Dioné Pierre, d'Espelette, pour un lot de fromages exquis, pâturages de Choporro.

2e prix, 10 fr., à Mme Itoïz Véronique, d'Espelette, pour un lot de fromages, pâturages d'Escandray.

3e prix, 5 fr., à Mme Dioné Michel, d'Espelette, pour un lot de fromages, pâturages du Mont Darrain.

4e prix, 5 fr., à M. Larre Baptiste, pour un lot de produits agricoles.

5e prix, 5 fr., à M. Massonde André, d'Itxassou, pour un lot de fromages.

6e prix, 5 fr., à M. Iriquin Bernardin, d'Ustaritz, pour lot de légumes divers.

7e prix, 5 fr., à M. Darlas Joseph, pour lot de légumes.

8e prix, 5 fr., à M. Etchechury Jean-Baptiste, pour son exposition de pieds de maïs.

INSTRUMENTS AGRICOLES

Mention honorable et rappel de récompenses précédemment décernées à MM. G. Etchégaray et fils, constructeurs-mécaniciens à Espelette, pour l'ensemble de leur exposition d'instruments agricoles d'intérieur et d'extérieur de ferme.

Espelette, le 21 juillet 1914.

Pour copie conforme :

Le secrétaire trésorier,

L. DARANATZ.

Je ne fume que le NIL

BIZIKI ON DA

On da biziki, jakitea, Baionako Halles karrikan den BELLE JARDINIERE oihal Magasinak ez duela « succursale » bigarren etcherik.

Jakitea on da gure otomobil eder, Pariseko kazetek eta orok hainbertze aiphatu dutena, badoala inguruetako merkatu handienetarat.

Zer nahi erroperia, jaunzterat prest, han berean saltzeko direnez bertzalde, badauzka chantilun suerte guzietarik, magasinan ja josiak edo izaris emener josteko.

CRÉDIT LYONNAIS

Baionan Libertateko Plazan

Crédit Lyonnais Hartzen eta Pagatzen ditu

AMERIKETAKO CHEKAK

eta Paper suerte guziak.

Saltzen eta erosten ere ditu Paper eta titulu suerte guziak.

Crédit Lyonnais emaiten ditu publikoari behar ditugun argitasun guziak tituluen e osteen gainean bai eta ere kontseilu hoberenak dirau ongi pausatzeko.

BADA JAUN ESKUALDUN BAT

Kredit Lioneko [illegible], gauza horietaz berechiki kargatua dena.

ESKUARAZ MINTZATZEN DA

Union Régionale et Bayonnaise

Froskitzue behar dituzuen gauzak zuen adiskideeri eta aspaldi ezagutzen dituzuen botigeeri.

Laguntza bat behar duzuenean badakizue norat joan eta zuzen da sosa duzuenean joaitea hetara ; eta izanen dituzue gauzak non nahi bezain merke, onak, eta bertzalde *Timbreak*.

TIMBRE CHISTERAK dira denetarik abantailosenak, bainan ez ahantz ez direla emaiten « *au comptant* » erosten duteneri baizik.

SALTZALERI

Ez da timbre de l'U. R. B. baino hoberik. Zuen saltzearen konserbatzeko eta hedatzeko, timbre hori duzue merkeena eta primarik ederrenak eta baliosenak emaiten ahal dituena.

Jadanik badira primak hiru lekutan .

BAIONAN, rue d'Espagne ;

DONIBANE GARAZIN, Jauréguiberry baithan ;

DONIBANE ZIBURUN, au Boulevard, Estoueigt baithan ; eta laster izanen dire bertze herri gotorretan.

Batasunak egiten du indarra.

Beraz emazue denek timbre bera eta dembora laburrik barnean ezagutuko duzue erran horren egia.

Timbres de l'Union Régionale Bayonnaise

Dépôt de Primes à :

BAYONNE. 20, rue d'Espagne.

ST JEAN-DE-LUZ, au boulevard, chez M. Estoueigt, coiffeur.

ST-JEAN-PIED-DE-PORT, chez M. Jauréguibéhère, receveur-buraliste, rue d'Espagne.

Bachenabarre

ARROSA

Azken aldian berantegiz ezin eman dugu berritto nau. .Oraikotz, chahartdchea, ez dugu emaiten, ezin utzia delakotz; bainan Eskual herriko berriak *Eskualdunerat* bakan heldu, hau Arrosatik lehena ezpada ere, ametsetako lukainka bezalatsu geroz jina boa dena den.

Nehori ez ahal dio min handirik eginen; irakurtzale zonbeiti, behar-bada, guti edo aski atsegin.

Uztailaren 14eko pesta, ondoko igandean Arrosan, herri huntarat duela bospasei urthe jin arrotz bat gidari.

Bi kazetetan segurik, menturaz gehiagotan ere, oihu egina zuten gaitzeko zerak ikusi behar ginituela : musika, dantza, jauzi, *passe-rue*, *illumination*, nik dakita zer eta zer!!

Delako *passerue* edo hura goizeko bederatziak eta erdietako zen aiphu, hain chuchen ere meza-nausiko demboran, erdiz erdi.

Eta nonbeitik, — hala beharra! — egun hartan, tenor berean herriko seme *Héguy* apez berriaren lehen mèza kantatua baikinuen, jende gogorra elizarat bildu; nehor ez plazan. Norentzat jo musika ?... Adio *passe-rues* !

Bazkaria eguerditan. Hilabethe bat aitzinetik gomitatuak zituzten beren kideko boz-ema le guziak; 97 gizon.

Ez dute bildu 56 bazkaltiar baizik; 56 hetarik *sei*, arrotz musikariak. Hara 50. Bertze bi arrotz oraino khen, eta lau herriko seme, hogoi urthez pekoak, horra *lau* eta bi, sei; 50 etarik, sei khen; geldi berrogoi-ta lau.

Berrogoi-ta laueko hartan doi-doia *bortz* etcheko jaun; bertze guziak — 39 — langile arrotz, joan jinka dabiltzan bazuetarik.

Aratsaldeko hiruetan, *balon* bat zuten goiti jauz-arazi behar, gainean emanik hitz hauk : « *Vaincus, mais plus forts que jamais. — Arrosako gorriak* ».

Balona goiti igan gabe, lurrean su lothurik, erretzen da.

Balean jende guti; hek ere nonbeikoak. Gauazko passe-rue-an kasik nehor. Musikariak zonbeit gazterekin, badoazi *Eiharlzeko* alderat. Jarrikitzale guti. Euria jauts ahala behin; gero ichtan bat atheri.

Baitzuten hitzemana gauazko argi, *feu d'artifice* delako bat gaitza, iraun du oren laurden eskas bat.

Etcherat itzul orou ginuen, *plus forts que jamais*.

Horra gure 14 juillet, Arrosatar jende onen gogorako, aski.

BUSSUNARITZ

Sarasketa *Etchoineko* etchetiarrak galdu ditu menditik behi bat eta miga bat. Hatzeman du miga *Hostan*; behia ez.

Hogoi-ta zonbeit egun hotan bilha dabila, alferretan

Norbeitek, balaki zerbeit berri, otheizten du hel-araz dezon lehen-bai-lehen; saristatua izanen da.

Huna behiaren seinaleak . kolore zuhail; gothor; adar handi, zabal batzu.

Ezkerreko beharrian ozka bat; adarrean zortziko chifrea, jabearen ustez. Erosia du behia, eta ez da soberarik chifretan aditzen.

Hamar urtheren ingurua du abereak.

Jabearen adreza :

JEAN SEMPE

Maison Etchoinia,

Bussunaritz-Sarrasquette. (B.-B.).

Ziberoan

ALTCHA BIHOTZAK!

Zer sailli jar? Zer erran?

Ez dakit batere, haimbeste beitu ikhousten eta entzuten begi beharriak den guziena zabalik dabilanak.

Gerlaa! Gerlaa! Bihotza tchistatzen deizien hitz illabur bena lazgarri hori da aho guzietan trebes.

Denak, tchipi ala handi, emuts ala laborari, zahar ala gazte, gizon eta emazte bai denak badauzka beldur batek eia denez phiztuko sarriche, bihar, oren paro baten burian — gaizak hartaraturik bestira hoatik — behinere ikhousi ez den bezaleko guduka izigarri bat, gizounak algarren kontre milioùnka jeikiko diren eta *Europa*-ko erresouma handienak oro sutan ezariko dutian guduka.

Gaiza izigarria da gerlaa, bethidanik izan dena eta mundiak diraino irañen diana

Erran beze amets egile zozokeriak gañia harturik diren batzuk, hourak bide egiten dian bezala, gizounak ere bide egin diala; ikhousi eta ikhasi diala, bizi-moldez khambiatu dela hain ontsa non ezin beita haboro gu beno gibel-ago ikhas-bidetan dagozinen artian baizik gerlarik phizten.

Hitz inganagarriak horik, barnia gochoki gillikatzen deizienak.

Bena ere hitz galgarriak gerlarik haboro izanen ez delako esperantchak baderamatzan erresoumentako ! !

Bai, diogu berriz ere, bai, gizounen artian aharra bezain erresoumen artian gerla izanen da; gizounen artian auzi, bilhaska eta holako, erresoumen artian tiro eta odol zapasta, berkhoi beita gizouna, beriari so, erresoumak ere bai halaber, ago ez badira.

Horra egia.

**

Egia hori argitan eman deikie — eta nola gero — azken egun horietako gerthaldiek.

Mehatchia hor da; zombaitek diroienaz, behinere beno gaitz-ago.

Ororen burian zer agituko da?

Bake biderik izanen deia?

Akomodu zerbait burutuko dieia bandan nor lehenik hasiko den deiez adiskider, etsaier tiroz, lehen oihiaren, lehen gerla aranaren baiduru dagozin erresoumek?

Jinkoak berak daki.

Zer nahi den, orai ez bada sarri joko du gerlaren orenak ,orai ez bada sarri armak eskietan zainthu beharko zaizku goure zuzenak; orai ez bada sarri *Frantzes* bati doakon eginbide thorpeena bethatzeko dukegu.

Orai beretik eman dizagula Jinkoak, sendimentuz, nahikuntez eta bihotzez behar dutugunak oro.

BARKOCHE

Balimbada norbait, *Barkochen*, guk heben ezarten dutugun hitzaldiak ikhousirik, phena hartzen dianik, hitzaldi horier begi gaistoz so dagoenik, othoizten dugu pharka dizagun egiten derogun nahi-gabia. Eta segurtatzen dugu entzutiak bezaimbeste, edo menturaz gehiago, phena emaiten diala gaiza batzuen aiphatziak.

Bestalde, nor nahi hutsian suertatzen ahal beita, goure adiskidiak eta gu halanola besterik edozoiñ, balimbada gouri berri heltzalen erranetan zerbait egia ez denik, mintza bite gaizak guk beno hobeki dazkienak oro, eta orori hounki jin dereikeku.

Berriz ere erran dezagun, ez gira mintzo mendekioz, bena bai egiak hounki eginen dialako oustekerian eta nahikuntian.

Houna arren zombait chehetarzun.

Eta, lehenik

Hastapena : Bozkak Barkochen

Egitekoek ororek badie erro bat, hastapen bat, abio bat. Hounek houn, gaistoek gaisto. Egia badere, nolako abiadura, gero halako segida eta ondoramenak. Gaiza suerte orotan hola da.

Barkoche-ko herria gaztigu handi baten azpian baitago orai, erran dugun bezala, aphezik eta eliza zerbutchurik gabe, batere dudarik gabe erran dezakegu, gaizak hortaratu balimbadira, hastapen gaisto batetarik abiatu direla.

Eta, alo, Barkochtar maitiak, bihotz hounez mintzo zaizie kaseta hounen egilia, apheza goure artian dagoeno, ez dutugu menturaz aski estimatzen Jinkoak egiteko eman izan deion lan eta zerbutchiak. Bena, erranik den bezala, gabia beita beltza, aphez gabeziatik ikhas ezazie zer den apheza, zer eman deikun Jinkoak apheza eman deikunian.

Barkoche-ko egitekoen hastapena izan zen, orai diala bi ourthe igaraiten, herriko kontseilieren bozketan.

Nor ez da oharturik, Ziberoan eta Uskal-herri guzian, *Barkoche*-ko bozkak, oraiko gizonen ohart-zaroaz geroz, bethi joan direla ontsa, erran nahi beita khiristi legiaren arabera?

Bethi, salbu behin, eta hori diala bi ourthe, herrik kontseillia berritu zienian.

Aldi horren [illegible] bethi ontsa zoazin, aspaldiko dembora etan.

Barkoche khambiatu zena ordian?

Ez batere. Ezik, erran delako bozka horren ondotik ere, bozkak ontsa joan dira bi aldiz, berheziki azken aldi hortan. Eta aithortu behar da saldo handienian direla orano khiristi hounak *Barkochen*.

Dibgu *berheziki azken aldi hortan*. Ezik, herriko aitzindariak alde bat ari direnian halako hatzian, nekez-ago da beste aldiari aritzia, eta nork bere eginbidiaren gizon eta khiristi bezala bethatzia.

Arren, diala bi ourthe, *Barkoche*-ko bozkak joan ziren,ordian artio eta geroztik ez bezala, Jinkoaren eta Elizaren etsaien althe.

Gero kasu houni.

Ez dugu erraiten ordian kontseiller sarthu ziren gizonak Jinkoaren eta Elizaren

etsai direla. Hori berek badakie guk beno hobeki.

Bena guk dakiguna, eta demendreneko dudarik gabe goratik erraiten duguna, hau da : halako gizoner botzik ezin dela emaiten kontzientziaz.

Eta hori, ez nahi baduzie, zeren diren diren uduri bergitez, bena bai, segur, zeren diren dutien adiskider dakigun bezala josirik.

Eta adiskide hourak, ez oro, bena bai biga, izan ziren *Barkochen*, bozka aitzineko igantian, botz emailen aholkatzen eta sustatzen. Eta hourak zirer *Olorou*-ko bi jaun, bat *La Frontière* derizan kaseta Elizak kondenatiaren buru dena, bestia ministro Protestant bat.

Batere ez dakigu zombatetarano bi jaun horiek *Barkoche*-ko gizonak bildu zutien.

Bena ororek dakiena da bi jaun horien adiskide eta deith-zaliak nausitu zirela, ordian artio eta geroztik khristi legia, bozka egunez, bethi burutan joan izan den herri batian.

Zertako hori? Erranik den bezala, nombait zerbait bada.

Bai, seguski. Eta diogu lan hori egin diela *Barkochen* zeren dien ezin sinhetsizko gezur bat sinhetsi.

Eta houna zer :

Eskola libroa

Dembora hetan, orai bezala, bestalde; lastima zen *Zibero*-ko zombait herrietan. Ez zen aski eskola *nulre* edo Jinkorik gabe izatia, Jinkoaren etsai bilhaturik zen eskola hori, zeren zutien haurrer emaiten sinheste khristiaren kaltetan baizik ezin irakousten diren liburu batzu.

Halako moldez non aita-amak bortchaturik beitziren, eta bortchaturik beitira, bi-etarik bat : edo haurren ez eskolatzerat, edo berak sakramenturik gabe egoiterat, haurrak igorten bazutien kontzientziaz ezir igorten diren eskoleta at.

Barkoche-ko jaun erretorari gogoratu zitzeion ordian behar ziala egin eskola khristi bat mothikoentzat. Eta hori aita-amen kontzientzien lacnian ezarteko, aita-amek ukhen lezen beren haurren eskolatzeko ahala kontzientzia kolpatu gabe.

Lan hori ederki burutu zian jaun erretorak, bere laguntzale hounekin.

Bena jaun erretora erne balimbazagon ere bere lanari, eta bihotza alagera obra houn bat buruturik, bestiak ere ez zauden lo.

Eta houna non, herriko bozka phuntian, berri handi bat hedatzen den, eta, hegoak oufatu suiaren pare, *Barkoche* ko bazter zabal orotara laster heltzen.

Nola aitzineko egunetan ordinko kontseilliak egin beitzutian lan batzu elizan, hegatza berritu eta beste, lan horiek akhabatu ziren eta ondoan ez zen beste berririk *Barkochen* bai ezik eta elizako botaturik izan diharia ez zela oro elizan joan, egin lanek ez zicla huillanik ere haimbeste balio eta jaun erretorak, ordinko jaun meraren baiarekin, diharu haborokina ezari ziala eskola libro-ko lanen phakatzen.

Hountarano joan zen gezur hori : kontseiller ohi batek dudan zirener erraiten zeien segur izan litian bala zela, houra han zela, bazakiala gaizak nola eginik izan ziren.

Gaiza hori ez bazen hola erranik izan, eia norbaitek izkiriba dezagula, eta emanen dugu haren hitzaldia ere. Jaun houra han zela... Ez zen bera; han ziren bestiak ere. Eia ja, arren egia denez. Mintza ein han zirenak, eia egia denez arren elizan ezari beharra eskolan emanik izan dela, eta hori kontseilluko gizonek jakiteko gisan.

Galthatzen deregu, halako egitekoak demendrena ezagutzen dutiener, eia halako lan bat, nahi bada ere, ahal dienez egiten erretor batek eta mera batek. Berek egin die hirour-gerren lagun bat gabe. Eta hirour-gerren lagun houra da elizako lanen *architecte*-a, lanen plan eta debis-ak egin ondoan, lan hourak phakatu beno lehen behar beitu erran eia lan egina: debisa balio dian bai ala ez; eta balio ez badu ezin dezake phakatzeko baia eman.

Ala jaun hori ere beste biekilan bersaltsan da? Alo dakiena mintza dadiela.

Zer nahi den beste elherik ez zen *Barkochen* bozka egunetan. Aphezak hola mazten baziren nausi, behar ziela herria osorik beretu, ordu zela aphez ari buhurtzeko gisan bozka litian herriko gizonak.

Eta izan ziren sinhesliak. Eta horra nolaz eta zertako joan ziren bezala joan ziren diala bi ourtheko bozkak ; horra nola eta zertarik abiaturik diren *Barkoche*-ko egiteko okherrak oro.

Zombat den dolu-garri nor nahi eta zer nahi sinhesten dian populia!

Errepublika eta Eskola laikoa

Zer batarzuna den bi gaiza horien artian! Balio balu, erran genezake hounhigarri dela.

Frantzia-ko Errepublika ez da ez Errepublika ez gobernu. Eskola bat da, sinheste bat, erakaspen bat. Oraiko Errepublika oro hountan da : gizon andana bat beren sinhestia burutan joan-erazi beharrez ari, *Elizaren* sinheste Jinkozkoari buhurtuz, eta hortakotzat katolikoen, ala aita-ama, ala haur, biltzen, batian enguruka eta lausenguz, zoin orduz bortchchako.

Oraiko Errepublika eta Jinkoari gerla egile eskola laikoa, biak bat dira.

Errazu edo egozu zerbait eskola laikoaren kontre, oraiko errepublikeiñek ororek botz batian atch! eta phakatuko duzula mehatchatzen zutie.

Oraiko Errepublikan badira gizonak, norbaitek beren chedetan trabatzen balimbadutu, ez beitoatza enguruka, bena bai illabur bidez. Fouera halakoa!

Eta, haatik, erran dugun bozkak joan zirenian, erran dugun bezala eta erran dugun elheen medioz, berhala beste elhe bat ere abiatu zen : bi ourtheren burian erretorak kampoa zukiala egoiten zen etchetik, herriak aphezetche-gei erosi etchetik.

Eta geroztik jaun batek segurtatzen zian aphez-etchetik bezala herritik ere kampoa zukiala, harek *zamar*-etik harturik igorriko bazian ere.

Elherhandiak, horiek oro. Ez da orbit menturaz, jaun hori, non eta noren aitzinian erranik elhe hori ; orhit-eraziko derogu nahi dianian.

Errazu, jauna, ez likezu sekula behar hartzaren larriak saldu hartza eho beno lehen. Izan duzu dembora bat, non zu bezalakoek aphezak jauz-erazten beitzutien beren parropietarik.

Bena dembora hori lehen zuzun, eta orai joanik duzu.

Geroztik *Frantzia*-ko Elizak baditizu bi gaiza ordian ez zutianak : gosia, ohoiñek hartaraturik, eta gero berak bere gisa gobernatzeko libertetia.

Eta libertate hortaz nahi duzu baliatu, zeren dian aski khario phakaturik.

Orai artio ez bazinakian ere, heben harat ikhasiko duzu.

Geroko hitzaldietan ikhousiko dugu nola abiatu ziren sail horri, abiatu-eta nola segitu.

E.

MAULE

ON DEMANDE à louer, à MAULEON, un magasin place des Allées de la Soule, ou à proximité. Ecrire au bureau du journal.

Touzet Souprefeta

Touzet Bordelesak hatia hountzen du arren *Maule*-rik.

Laketurik zen orai hehen eta, lakatsa larriari bezala, lothurik arrondisamentu houni.

Ez du hoberik; behar du *Oberña*-rat joan edo Gobernuko anhoua utzi.

Khumitu bat gaitza egin du Arrondisamentuko blokarrer orori. Nahi du ase bat egin dezen haren ouhouretan, ez arrastan haren khostuz. Bakhotcha bere sosetik ariren da : bazkaria 5 libera.

Eskerrik hanitch. Holako khumitiak aisa dira egiteko.

Badakizicia *Touzet* jaunak ukhen dirokiala chanfart hortan bere irabazia? Bazkariak oro ez dira 5 libera khostatzen.

Eugène Candau hagin atheratzale, ahoko arthatzale « *chirurgien-dentiste* » ezagutua, medela urhezkoak eta oro dituena, zuen zerbitzuko izanen da : astelehen guziez Donianen, ortzirale guziez Donapaleun ; bertze egun guziez Maulen.

ATHARRATZE

Igaran igantian izan da, *Paue* khantuko herri batetan, *Gelos*-en, « *Cor de chasse* » *fanfaren Concours* edo zoiñ hobeka bat.

Atharratze-ko *fanfara* han zen.

Hobenetarik bat dela ezaguturik izan da : lehen prima, medailla eta beste ouhourezko sari ukhen du besata bat.

Biba *Atharratze*-ko fanfara.

Hanitch aldiz entzuten dugu : Zer berri kaseta horietan? Paperak ezariak hartzen?

Egia da; paperak ezariak hartzen dutu, hala badira eta ez badira.

Irakourri dianak « *Le Basque Républicain* » azken astekoa, zakialarik ontsa zer modelatako ,zoiñen erri egingarriko izan den zozializtek *Udole*-eneko bordan egin dien biltzarrena, erran en du, sinhestiak oro galdurik : «kasetak gezur eihera batzu dira. »

Ez gunian ouste, gorrietan ihourk aiphatu ere nahi ukhenen ziala biltzarren houra izan den bezalako errenbeskeria bat; eta horra zer alcluiekin jelkhiten den « *Le Basque Républicain* ».

Ororen burian kaseta hori ezin ichilik egoiten ahal ere !

Eskaliak gordatzen du larria ahal dian bezala, zerbait zoñetako hantik edo hebentik bildu dutianez. *Le Basque Républicain*-ak nahi luke ezabatu bere ahalkia gezur meta bat haren gaña ezariz.

Ez dugu gogoan igaraiten *Fontvielle* delako zozialist gizon entzuna berriz abiaturen dela *Atharratzen* biltzarren egitera; ezagutu duke houra udurien ez dela beben bizipiderik.

Eta « *La Petite Gironde* » kasetaz, zer diozie?

Bere arabera ez du harek nahi zozializtekin haremanik, bere arabera, ez da sekula mintzo *ia* bezain chuchen den politikaz baizik.

Eta haatik igaran-erazi deroie zorro baten bethe zantzailkeria, eta harek lehionski oro hedatu dutu.

Petite Gironde tu ne mérites pas les félicitations des républicains honnêtes!

ZUNHARRE

Jaun kaseta egilia;

Zunharre-ko eliza bestaz mintzo zirelarik diozu : « Khumitu beranta, khumitu auherra » ; bena araiz ahatze duzu eliza besta igantiareki egiten dela, eta ez Patrouaren egunareki.

Ene khumitia arren heltu ahal zukezun zoure kasetaren bidez neskenegunian behin eta aski demboratan biharamuneko anhouaren adelatzeko.

Bena bego hortan gaiza, ororek komprenitu dizugu etzinela izkiribu eskazian zoure kasetaren moldatzeko, eta goure hitzaldiari aste bat edo bigen egurukierazteko.

Hau neikezu bargatik burian sar-erazi nahi zouri eta zoure irakourzaler : ez dela hañ gibel gizon houra galthatzen diana haurrak egon ditian aita eta amen huillon, eta hen begien aitzinian har ditzen beren deskantsiak. Erran ezadazut badeja deus ederragorik, deus sanoagorik, deus bihotzaren hounkigarriagorik nola familiaren algarreki ikhoustia, familian algarrez gozatzia, eta noiztarik noiztara kampañako aire chahiaren algarreki hartzia?

Hambat gaisto neskatilak zare baten ekhartiaz ahalketzen badira ; hambat gaisto mothiko gaztiak beren etchekoez ahalketzen badira, eta hetarik hurrun behar badutie hartu beren deskantsiak!

Hourak dutuzu, hourak egiazko gibelak eta ontsari eta egin behar lizatekianari uzkuz jarliak.

Eztit ouste *Paris*-eko jentia *Frantzia*-ko gibelena den, eta haatik *Paris*-en, ari bezala ibili bazina, ikhousi zunukian — eta ikhous liozie goure gaztek — hanko egoiliarrak saldoka doatzala, eta anho kargaturik igante arristirietan kampañalat, edo *Boulogne*-ko oihanialat, han bere aitaamekin, adiskidekin, belhar freskaren gañen arrastiri-askari houn baten egiteko, aire garbiaz gozatzeko, eta asteko osagarriaren bilhatzeko.

Paristarrek egiten diena eginik etzaizia uduri, jaun kaseta egilia, ontsa lizatekiela goure aldetan ere, etzaizia uduri familian haboro amodio, haboro estekadura eta obedientzia balizatekiela, eta, hartzaz beraz, oraiko demboretan den beno guti-ago aharra, eta algarrekin ezin-entzute?

Horra zertako berriz ere mintzo nizan zoure kaseta estimagarrian, eta batez beno haboro tcherkatzen nühian entzunik zaitia.

LAKHARRI

Oraidanik aitzina badate holatan, *Lakharrin* ere « *operazione* » egile gazte bat, eta bere *klinika* eraiki du etche hegatz gorri batetan dudarik gabe hartako alokaidetiar gorri, hegatz chilouaren abisen hartzeko, eta menturaz ere bai hari bere khountien egin-erazteko.

Jakin dugu ezari gei diala ere ensegna bat bitz doratuz. Bena uduri zaiku hobe lukiala, erreklama houn baten egiteko, etche hortako oraiko nausia borthan chuti egon erazirik, eta bera gañeko leiho batetan besainkoka zabal zabala jarririk, zombait orduz *Zuburian* eta *Jargohenian* jarten den bezala. Gizon gazte horrek sendo-erazten dian eritarzunaz harturik direnak ikhoustiarekin begiak handiturik eta ontsatto armaturik so egiten diela gain behera, lotsa izateko da arrount gibel abia ditian eraiten dielarik : « Operazione egitiaren bortchaz bera burhunguriaz hounkitzen hasirik ahal duk; sendotzeko phartez sordei khozaturen gitik ».

Eta ez dugu ouste apeu leiñ harren dei eztiak ere haboro arra-bilduren dutian.

Uduri zaiku haatik hobeki joanen zaiola bere adiskide etche gorriko nausi mehiak aholkaturik pratikatu gei dian *greffe animale* horri.

Berbera nahi derogu jakin-erazi ez dela kasko zaharretan larru gazterik arra-sortzen, haboroziez zuhaiñ zaharretan empeltu gazterik arra-lotzen; eta hartakoz hobe diala *Phaule*-ren buru bizkarra den gisa utzirik, iranko solido beitu, eta bere iscia pratikaturik adiskide lehen horren burian, *ez akher larruz*, sordei meha beleiko, *ez asto larruz ere*, sordei gogor beleiko, bena, berak diroana, hacheri larruz, amorekatik desiratzen lukian bezala, *Lakharrarak* oro bere eskiala emeki emeki bil ditzan.

Ez dugu ouste *Atharratze*-ko kasko zouriak egundano ukhen dian operazione gisa hortako beharrik. Ezi larria handitto ukhenik ere, sano du, eta kaskoa ere zouri ukhena gatik, entheleguz ontsa betherik du; ez goure *klinikero* gazte horien gisa, handi eta hutsik edo hersi eta nahasirik.

Daigun maskaradetan berriz *Poupou*ari gei bolimbadu *Eliebe* chirurgienak, eta nahi badu bere buria larru beltzez maskatu, ez ahal du ihouri elkhi beharrik. Derbera ez dezala jokurik egun holakoari edo halakoari bere operazionia erreusituren diala, ezi ez ahal da azken bozka horietan ere jokukatik ontsa baratu; eta ez balu segretariak egari, lotsa izateko zatian ourthiaren koursian bere faltaz phitcher ardou zombait gutiago edanen zian.

Ouste zian, gaizoa, *Guéraçaque* aisa igaraiten zela deputatu, bena bere jokiaren irabazteko ez du aski berme hounik ukhen,

Daigun aldian nahi badu ourthaldi bat gozorik igaran, aholkatzen dugu bere soldata arrichka dezan *Ybarnegaray* jaun deputatiaren althe, ezi egunko eguhian arrandari ere legarra ezari dere, eta phena lizate hañ nekez irabaz soaren *banquier* koki zombaiti pherestatzia.

Jaun kaseta egilia;

Errepublika besta herrian beltch ukhen dugu aurthen, nahiz dembora ederra zen.

Arratsaldian baatik goure bi aitzindariek argi bedera phiztu dutie herriko etxe berrian, eta, segur, *Lakharri*-ko kharrikak alagrantzia handian ezarri.

Ikhousi dienian goustu ederrian egin ziela « *illuminazione* » hori, abiatu dira *Maitenaren* ikhoustera joan behar ziela bestaren ederki urhentzeko. Bena etchekandere horrek ez beiteie batzarria sobera houn egiñ jauntto horien « *anontzazaler* » eta « *venu toi-même* » leihoan agitu beita, harek bere etcherat bildu dutu, han hobeki ageri ziratekiala, eta traidorerik baterê gabe, besta ontsa akabiko ziela. Eta haatik berak izana gatik ez dira hanitch alageratu; uduri zian ere dollan zela khantari den jaun gazte horrek. Goure herrialat jin zenian gizontto hori, *Lakharrin* barreiatu zen berria bazakiala horrek ez zela ber bounetaz bi buru thapatzen aha, eta gizon batek erran zian « Hori balimbadaki, badakizu aski alaikoua ».

Zorigaitzez ikhousten dugu orai ez diala horren bounetak bat ere osoki gordatzen, eta dena hala houlako dela.

Zoure Zerbutchari.

ATHEI

Atheiarrak — Atharratze-ko kantonamentian baduk *hogei-ta hamar* errejent-errejentsa . gutiena *berrogei-ta zatpi mila libera* khostatzen zizkuk ourthekal.

Ororen artian, haborocnetik ere zortzi ehun haur die eskolatzen. Haur bakhotcharen eskolatzia arren ourthekal *berrogei-ta hemeretzu* libera khostatzen zikuk.

Sei ourthez bederen-zazpitarik hamahirour-etara — haurrek eskolan ibili behar die. Haur bakhotcharen eskolatzia beraz, *hirour ehun eta berrogei-ta hamalaur liberatara* artino jiten zikuk ; eta hori, errejent errejentsa phakatzez solamente.

Liburu, kahier, luma phakatzia, nirour ehun eta berrogei-ta hamar *espeturren* phakatzia, eskola handietako *profezurren* phakatzia, eskola berri egitia, eskolako gaizen arra-berritzia, horiek oro orano goure gain dutuk.

Orano berri, deputatien bilkhuran, deputatu batek erraiten zia, haur baten eskolatzia ourthekal *hiroureian hogei-ta hamalaur libera eta bi sos* khostatzen zela , sei ourthez arren : LAUR EHUN ETA BERROGEI-TA LAUR LIBERA. Eskola dohenik duk!

Haunziarrak.—Ezdeitadak hik, ezditadek ihourkere eni burian ezariko haurren eskolatzia hain khario jiten zaikula! Ezduk izaten ahal, eta houna proba bat :

Haunzen, hogei-ta bost haur bederen baduk eskolan ibilteko adinian ; bakhotcharen eskolatzia hirouretan hogei-ta hamalaur libera khosta balekigu ourthian, *hamar mila* liberaren legarra baginikek, oro khountaturik! Ezdiagu aldiz erdia, ez laugerren paartia ere legarkariari phakatzen ourthian, *Haunze* orotarik!

Atheiarrak — Baita nik hamar mila libera beno haboro ere ourthekal phakatzen duziela nahi deiatprobatu!

Hik eta beste hanitchek ouste duzie, — nik ere baiñorano berri artino — huillan ororek *Frantzian* ouste die legarkariari emaiten dien sosaz kampo ez diela deusere haboro phakatzen. Feitian aldiz gutiena bostetakoaz haboro phakatu behartzen ziek, *ez chuchenka*, edo *eskutik eskiala* phakatzez — legarkariari bezala — bena *enguruka*.

Erranen deiziet nola.

(*Gero segida*).

LIGINAGA

Aurthen gisala errejent eta errejentsak ez dira izigarriko goustian egon *Certificat d'études* delako horren etsamenetako egunian.

Aspaldittoan mundiak ziouan : « Goure errejent eta errejentsek haurrak oro errezebi-erazten dutie. Zer langiliak diren!»

Bena, bat batetan, jarri dira ozke herroka batez gibelturik.

Zer jin zaio buriala eskoletako espeturrari?

12 haur gibel igorri dutu, eta hartu dutian zombaitez etzen hanitch kontent.

Hamabietarik bat *Liginagarra* da, *Atharratze*-ko mothikoen eskolan dabilana. *Desplas Atharratze*-ko errejentak presentatu dutu 4 baur; bat errefusaturik; izan da.

Olorou-eko eskola superiuretik bi mothiko jin-erazi dutie *Atharratzen* presentatzera.

Etzirena *Olorouen* presentatzen ahal?

Noren izenian hourak igaran-erazi dutie?

Ez ahal *Olorou*-ko errejentaren izenian?

LARRAÑE

Bortu ondoko berri

Tratalantak jin zaizku aurthen agorrila gabe.

Añaut-ek eta *Bordaber*-ek ehun liberako zombait paper utzi die *Larrañen*, kabale hounik ere bai eramanen daigun merkhatu egunian.

Behiak phakatu dutie 350 eta 400 liberaren arte hortan; ahariak 35 liberaz gañetik.

Uthurrait-en behi batek, orano erditzeko denak, egin du 450 libera. *Iribe*-k, *Quihillaber*-ek eta beste zombaitek egin die anariez 33 liberatarano.

Arrakasta badu *Larrañe*-ko kabaliak eta berheziki behi-kentiak. Areta ez da larrienetarik. Kalitatia arauz, ezi, diroienaz, hebenko behia *Petlar*-ian larritzen da bere egindura eijerra begiratuz.

Zer nahi den, *Larrañe*-ko laborariak sos ederra egiten du. Artho edo ogi erosterik ez balitz, ez eta legar phakatzerik, ez eta ostatuko egoitzaren phakatzerik...

Bortuko berri

Olha barreiiak eginik, ardiak mouchturik, gaznak phartiturik, erregleen bardintzeko gaznak saldurik edo erosirik bortuko usakinaren arau, libera hamar sosetan, achouriak joanik, ahariak ere bai, zer demborañia eraman behar deikien goure artzaiñ jauneek !

⁂

« *Jaunak* », deithura hori ontsa ohatzen zaie, heben harat bortuzale jinen direner.

UN MONSIEUR offre gratuitement à tous ceux qui sont atteints d'une maladie de la peau, dartres, eczémas, boutons, démangeaisons, bronchites chroniques, maladies de la poitrine, de l'estomac et de la vessie, de rhumatismes, un moyen infaillible de se guérir promptement, ainsi qu'il l'a été radicalement lui-même, après avoir souffert et essayé en vain tous les remèdes préconisés. Cette offre, dont on appréciera le but humanitaire, est la conséquence d'un vœu.

Ecrire à M. VINCENT, 8, place Victor Hugo, à Grenoble, qui répondra gratis et franco par courrier et enverra les indications demandées.

Eros kitzue zuen mubleak *egilearen* baithan. Izanen duzue marchandiza **hobea** eta **merkeago** . . . . . .

Etcheaz'en izena :

LE MOBILIER

1, Marengo karrik'an, BAIONAN

Erranen duzie jaun izateko behar dela burian tchapel-bat, souñiam palto bat, eskietan khana bat eta sakolan auher bizitzekoa.

Daukat tchapela ez dela bait ezpadazko gaiza jaun izateko eta gañerat koak oro badutiela orai dembora egiten am direnek.

Paltoa, guziek; ez berri berria ez eta berhachka, arduran hirietako jaun zombaiten souñian higatuche beita, ber a paltoa.

Khana ez hiriko jaunek bezain chotil eta molde eijerrekoa, bena artzaiñ makhila.

Auher bizitzekoa ere bai, auher bizi direnaz geroz. Ezik zer lan egiten die? guizan ardien ilhertzia, egunaz kaseta chabar zombaiten irakourtzia eta arristiri erditan, bildu nahi diren ardien biltzia; besterik ez.

⁂

Oraiko dembora egileer eman deie beste deithura bat : « *hourtazaliak* ».

Ez da batere gaizki emanik.

Olharik ez da bere hour-sorgia ez diana. Uthurri haietako hourak ez du zor handirik *Ahuski*-ko hourari. Ere goure artzain chabarrek bouiltetako chendak beno hobeki ezagutzen eta usiago igaraiten die hour-sorgialat-ko chenda.

Ontsa egiten beitie. Ez dutiela urhats egiliak? Olha lagunetako emaiten deitze haurrola batzu, etchetan hachekako houn ez direnak. Haurrak ez ditazke ukhurian egon eta zothukatu beharra badie.

⁂

Arren dembora egiliak, chaharrak berere, jaun eta hourtazale. Deusere eskazik, etzangia mardochi-ago balie.

Atzia! atzia! ahal bezalako etzangia gizon chaharrarentako.

Halere zombaitek jarraiki-erazten dutie edo lasto-ountziak edo koltchouak, edo biak.

Zertako arren ez dira, marinelak bezala, *hamacs* direlako eta khordaz eginik diren oheez duntzen? Trastu suerte hori ez da hanitch khostatzen, diroienaz, ez du lekhu handirik hartzen eta franko etzangia mardoa da.

Handi da *Arratzolatz*-eko artzain chabarra halakoala ez denian heltu. Ez othe dia orano bere buria aski maite, edo dubeldurra, , erosi dukienian *hamac*-a, ez dela aski luzaz biziren haren gozatzeko?

⁂

Artzañak, arren, etzangiaz baizik hanitch pontsa liratezke, dembora hounari buruz, dembora batere egar-hau delarik.

Kabaliak ez dira gaiski. Zombait egun hountan berere houn-hartzen die, ez beita mia.

Beharden belharraren jiteko aroa aski lazu eta bousti da. Aroa idorrago izanez balizate belhar haboro, bena *Etchebartar* (illietarik) eta espare horietarik ere bai; ihize houn horik aldiz partida kabalentako.

Nik ouste haatik goure artzain chabarreek ez lutuzkiela illiak partida eta hounak berochago goizian iratzar litazkiala.

SANTA-GRAZI

Orok ezagutzen dugu heben herriko jaun meraren sinadura. Orok badakigu arren *Paris*-erat igorrik izan den pleinta hartako *legalisazionia* ez dela merak eginik.

Sinadura faltsu egile bat izan da; harek behar du agertu.

Jaun merak balinbadaki zerbait berri erran dezala, egitekoa horbara dadin.

Bestela behar izanen da joan Prokuradoriaren edireitera.

ETHENDURAK

edo sabel ttipiaren Yausteak

sendatuak dira **OPERAZIONERIK** gabe

Zer pocholua eta min hastiala, ethendura ! Lur langileri da gehienik aiher.

Beraz zer ongia ororentzat, *E. Gerberon* Paristar ethendura arthatzale bereziak hatzeman sendagailua ! Oraino ezagutua ez zen gisa batean arthatzen ditu eta sendatzen ethendura guziak. ba eta barneko zeren aldaratze eta makurtzeak oro, operazionerik gabe ; deus pocholurik gabe, lanak eta oro usaian eginez.

Hortakotz atsegin dugu jakin-araztea *E. Gerberon* delako jauna, ja toki hautan ezagutua, hemen izanen dugula, bera, haren beharra duketenen zerbitzuko :

DONIANE-GARAZIN : Aboztuaren 10, astelehenean, *Central Hôtel.*

HAZPARNEN : Aboztuaren 11, asteartean, *Hôtel Gascoina*, rue Neuve (elizaren).

BAIGORRYN : Aboztuaren 12. asteazkenean, *Hôtel des Pyrénées* (Gineste).

BAIONAN : Aboztuaren 13, ortzegunean, *Hôtel de Paris et Bilbaina*, r. Thiers.

DONAPALEUN : Aboztuaren 14, ortziralean, *Hôtel de la Paix* (Lagarde).

MAULEN : Aboztuaren 19, asteazkenean, *Hôtel Bidegain.*

OLORONEN : Aboztuaren 21, ortziralean, *Hôtel Loustalot.*

Gauza hauen yakinaraztea ororí zerbitzu egitea lilake Hortakotz othoizten zaitugu paper hau phasaraz dezazun zure ahide eta adiskider.

Baztan-dik

Elizondoko ɓestak ginituen larunbatetik.

Jostela berritzat izan ditugu zezenak; eta auek dauzkagulakotz goguan, barkatu nere sailño onen lanpidez.

Lenbizik, zezen jostaketa kristauari zil da? San Pio Venak jo zuen josteta ori exkomunioarekin eta ordutik onat ezta Aita Saindurik izan, zil dela erran duenik. Gure Eliza Ama sainduak debekatua du, eta orgatik eztu onetsi, egon dadien apezik, plaza barrenean, olio dura Sainduarekin; josteta orietan maiz gertatzen baita bat bateko edo trupustako eriotza, zezen iltzalen artean.

Jakina, ikusleen jostarazteko xedea ezta aski, gizon bat, bere bizia irrixku ortan erabiltzea.

Baña ori ala eta nola plazak kristauez beteak? Alako kristauak garelakotz eta josteta orrek baduelakotz gizonen aldetik abilezia zezen baten garaitzeko.

Bertze gisaz ,gizona beti irrixkuan,zezena erroka ta odola dariola ; zaldia itsutua tripa dariola eta ala ere ikusleak abotik zikinkeria dariotela zer nai gauza erranez eta botatuz *toreadoren* kontra. Ezta euskeldunentzat josteta ori ; bertze gisaz gaude aziak, Jinkoari esker.

Beiñere ez eta orai zergatik gabiltza euskalerrian sartu naiez josteta okaztagarri ori? Ezta arrazoiñ bat baizik : gu arrozteu garelakotz. Dantza eta itz zikinen ondotik *Chulo*-en josteta ori! To, To! Euskeldunak *chulo* biurtuak! Zer itxura!

Eta garaiez! Grai iri aundi orietan aunitzek asiak direlarik josteta onen kontra; kazetak arrazoñez beterik debekatzen dutelarik, gogor egiten diotelarik, gu, sos batzuen gatik, zezen zaletuak!

Larunbatean Elizondon zezenetara zen jendeak ikusi aal zuen nola aspertuarazi daiteken eta sakela ustuazi aitzaki gutiz.

Atzo igandean jende guti baizik ez omen zen; baña bertze gisaz, franko, besta itsusi arentzat; sakela ustutzeko inganio bertzerik, zioten, etzela izan. Gaur goizean, eguerdi aitzinean erritarrek beren artean egin dute plaza zarrean, pilota partida esku larruz ta lazoan.

Baña ageri zen nola naiko partida zela, jokatu dutena eta ortaz landa ere jokalariak ez gañeko mallakoak.

Egia da, Elizondon bakan ari dire joku ortan, eta ez ibiltzearekin, emendik denbora llabur jokularik gabe.

Dantzak berriz, gauaz ta egunaz eta ez euskeldun dautzak orietarik mutil dantza baizik ez, auxe bai ederki egin zuten atzo arratsaldean.

⁂

Goan den astearte goizean, ameketako garaian gertakari itsusi bat izan ginuen *Iruritako* erri ondoan, burri bidearentzat xeakatzen ari diren murru baten ondoan.

Dinamitaz ari baitire; zapart orietarik batek biali zuen, kañon batetik bala ateratzen den gisaz, iru libra eta erdiko arri bat ain xuxen bi aur zauden aldera.

Aur oriek, naiz berreun ta berrogei bat metro arrobitik urrun ziren, jo zuen bat bularrean, biotzaren gañean.

Ilik gelditu zen; ai! erran gabe. Medikuek ongi ikertu ondoan erran zuten bi kostilla autsiak eta biotza leertua zauzkala neskatiko doakabeak; bederatzi urtekoa eta amar senidetik neskatxa bakarra zen.

⁂

Bertze solaspidea gezur andi bat omen da.

Diote, gain gaineko auzietako *fiscala* edo *Procuradorearen* seme batek ebatsi dituela autzi baten ontasunetarik, nik eztakit zenbat; eta orgatik nastura aundiak izandu direla, gañeko mailla orietan bizi direnen artean, eta bai ere gobernuko ministroen artean.

⁂

Belale aldeko artzañak arrankura dire, ardi aunitz, galtzen dituztela urbideko *canale* ageri orietan, preziski estali bearrak direla, bertzenaz eztaitekela ardiekin egon.

Baztango buruzagiek itz - eman bide dute erdietsiko dutela nai duten bezala.

Uztaila-ren 27an.

BERRIELARAZLEA.

Contre la Chaleur

Pendant les chaleurs il faut boire peu. Un délicieux rafraichissement à la fois tonique et digestif que nous recommandons à nos lecteurs, c'est la liqueur basque **IZARRA** étendue de limonade bien fraîche ou de glace pilée. Le précieux cordial des Basques conserve en ce mélange toute la suavité de son arôme et ses bienfaisantes qualités et constitue par cela même le rafraichissement idéal.

NAFARROTIK

IRUNA'N

Egun arratsaldean ateitzen da gure Gotzaille on maitea Lurdes-ko batzar aundi ospatsurat.

Iruñar multzo polit bat badoaie bere artzaiaren ondoan Nafarra oroen izenean.

Gogotik joanen ginen aunitz eun, sakela utsak izanez, gere etxetan gelditzen gera ; bainan biotzak an idukiko ditugu egunoro.

Bilbao ta Donosti aldetik badoazi ez dakit zenbat eun euskaldun, zortzi bederatzi eun bai noski; bainan, gure lotsa! euskaldunak ez balire bezala, españar arpegiak estaltzen dituela, agertuko bide dire or...

Lurdes-ko Ama ezti eztiak euskaldunen ganik bertzerik igurikako zuen bada!

Arkaitzpeko Ama on orren gerizirat, bozik bilduko ginen oraiko ontan, aunitz milla euskaldun Euskalerri osotik; euskaldunak ordean, ez bide gera on bertzien artean agertzeko, euskaltasun au gora daramagula.

Lurdes-ko bilkuretan aunitz mintzai ibilliko dire ta izkera orotan itzaldi ederrak eginen dituzte... Gure izkuntz ederra, ene euskara gacho, ez da deusetako agertuko; negargarria ta lotsagarria ez ote da au euskaldun ororentzat?...

Nafarra-ko eliz guzietan, Apezpiku jaunak aginduta, egiten dugu irurren polita ta igandean jai aundi bere ibildeun edo prozesio ederrakiñ, Lurdes-ko batzar ori ondorio ta azken ederduna izan izan dadien tzat.

⁂

Zortzi urteko nechka ona, unen 16an, erori zen laugarren goiatik karrikarat.

Lizoain nechka polita, porrokatu urrana, eraman zuten lasterka eritegirat; iru orduren buruan gachoa, Sakramentuak arturik, zeruratu zen.

Naigabe mina gurasuentzat ola umea galtzea, eztigarri ona atik sakramentuak artzeko bidea Jainkoak eman dionean.

⁂

Amar neurkiñdun (metro) gaindegitik erori zen lengo orziralean langille bat, Ballejo Artreta-tar Konrado; buru bularretan zauri itsusiak zituen gaichoak.

Erorka au egin zuen beargin gaizoak ango ongarri olan; ongi lantegi galgarriak bide dire ola ortan iruzpalau urte otan langille mordochka bat olachen joan baitire.

Goikoak diola sendabidea min-artuari.

ARTAXONA-N

Iruña-tik beerachagoko erri aundi ontan negargai gogorra agitu zitzaien ortzegunean.

Zaldi ganean eldu zen bere alorratik etcherat, Gorraiz-tarr Filipe, 65 urteko lugin ona.

Uste kabian erori bere zalditik nekazale maitea ta epe labur buruan illa zagon.

LESAKA-N

Bidaso aldeko erri eder ontan, ointza itsusi okagarri bat gertatu da joan den larunbatean.

Lesakarrak eta bai ere ondoko erriak nardatuak gelditu dire itsuskeri ori aditutа.

Larunbata eguerdi eguerdian bi gizon ongi jauntziak joan ziren elizarat; eliz gain gainekoa baita, arrotz aunitz sartzen dire ikusterat eta tchoraturik gelditzen dire.

Orain ere ol ko bat uste zuten orok eta iñork etzuen gaizkirik gogoan zirelako jaunentzat.

Apur batian elizan egonta ekarri zuten bidetik itzuli ziren ostaturat.

Eliz gelatik ebaskoa eginik joan ziren bi billigarro ok . diru kutcha ustuta ateri ziren oin zikinak ate ta egundainoko guziek len bezala utzirik.

Igandian sakristabak eskea egin bear eta, ideki zuen kutcha ta aren arridural... an etzagon sosik; urtean bildu zituen guziek norbaitek aizatu zituen.

Bear ziren bideak artu zituzten ooinen atchemaiteko; beila azterna bero beroa bazaukaten : erriko bideko ostatuan bi jaunskilla ek, 25 liberen sosak utzi zituzten zillarraz truk . lapurketa ezbairik gabe eken lana zen.

Bi tchorieri eskua botatzeka beila adierazi zuten eta Pausu aldean atzo arrapatu zituzten eta arratsaldian ongi loturik ekarri Lesaka-rat.

Batzuek diotenez lau eun libera eskuratu zituzten eta geienak berekin zituzten lapur lotsagalduak.

Ez da galdatu bearrik nongoak diren lapurrak . beti bezala erdalerritik etorriak dire ok ere; ameka onelako gizatzar badatorkigu! ederrak emanen ditiozte agian igorriko gero arat nioiz unat ez itzultzeko.

KARRKASTILLO-N

Gure Erriberan dago erri au. Garbestar Mamerto ari zen ogi jotzeko lanetan, ortarako diren tresna aundi berriekiñ.

Sua latu zaie, nola ez dakitela; bainan, zer sua? mendi bat añakoa...auts pilla aundi bat utsa geldítu zaio gaichoari.

Badu 10.000 liberaren makurra.

ALTSASUA-N

Nafarra ta Gipuzkoa-ko mugan *Olzaurle* derraioten tokian burdin bide ondoan zituzten metatuak ogi pilla aundiak tresnaz erauzteko.

Trenatik erori den su tchinga batek egin du lan guzia, ta agudo.

Galdu ederra danka Orta-tar andre Paskualak.

MARZILLA-N

Erriberan dago erri au. Asteazkenean ekaitz gogorra or.

Bitchabaletik zaien zalburdi batean Paskual-dar Emilio, ortziziri batek bidean geldi erazi zuen, zaldi ta burdi erretzen zitiola ta bera erdi itoa kiratsaren kiratsez.

Bere baitaratu zen agudo samar eta auzokoak lagundurik ez bide du gerokorik.

DONOSTIA-N

Uda mincan sartzera doazi Arrotz aunitz omen da dagoeneko.

Urtetik urterat ederrago ta apañago dager bere burua.

Illabate bat badu urbil erregiaren amak.

Atzo edo gaur doaie itsasoz bere semea, 13an Alfonso dagon Santander-at ...bere eguna an egin eta berriz igandeko atzeratzeko.

Erregia ta bere pamilia unen azkeneko, etorri bearrak bide dire Donosti-rat bi illabatetako.

PANTZETARRAN DONOSTIAN

Aintzineko urtetan bezala aurten ere egin dituzte Unen 14an jaiak.

Guziek sabel jai ta jostaketak ziren.

Eliz jai lipirrik ere ez ; okiñ eta bertze aunitz ok bezalako erdaldunekiñ gure uri polit orrek ustel gorotz eginik, lerr egin bear du noski agudo.

⁂

JEANA DE ARC

Pantze-ko gudontzi ederrak iru egun egin ditu lengo astean or.

Donostiarrak zer nai jai ta agur egin diote; bazkari on bat edo bi eman ere bai.

Pantzetarrak irri gogor bat egin eta joan bide dire diotenez.

Donosti-ko agintari ta aundi mandiak deitu zituzten ontsiko buruzagiak *le* baterat arratsaldeko lautako.

Ederki jauntzita joan ziren Donostiarrak kairat eta arriturik ontzirik an etzagola ikusi zuten

Itz bat erran gabe ontzi ori iruetan ateri omen zen Donosti-ko kaitik, Donostiarr guziek zelaian zabalian utzita

Itsuskeri aundia ta bitchia da au; baino Donosti guziak irri afariaz ikusi zutena, joan den ortzegunean.

⁂

AITA SANTUEN ORDEZKARIA

Donostian da ordezkari edo Nuncio agurgarri ori.

Zortzi egun baditu jadanik eta diotenez iaz bezala Uda guzia Donostian igaroko.

Jesuiten etchean dago ostatuz bezala.

BILBAO-N

Aurten ere ango euzko gaztedi-koak jai aundiak dituzte San Iñazio egunean.

Ederrena ta ikusgarriena 500 ta geiago ezpata dantzarik zelai batean emanen dituzten euskal dantzak.

Irrintzilariak 50, 40, 30 ta 20 liberako sariak izanen dituzte.

Badute bai ere sariketa euskal irakurleak, idazliak (eskribatzalleak) eta abeslariak (kantatzalliak) eta ez dakit zenbait gauza geiago.

Egun eder bat igaro nai duenak euskal gauzaz gozatzerat doaiela unen 31an *Bilbao-ral* eta etzaio urrikituko.

Uztailla 21an.

AMERIKETAKO ADICHKIDERI

Ameriketako herrialdetan (*Argentine Californie, Uruguay, Chili*) *Eskualduna* errezebitzen duten adichkideri galdegiten dugu laguntza bat. Nahi ginuke han harat gure kaseta geroago eta gehiago hedatu. Beraz hango irakurtzaletarik bakotchak bil dauzkigula bat, biga, hiru lagunen kaseta sariak eta guri lehen bai lehen igor, irakurtzale berrien adrezak emaitearekin chuchen.

AMERIKETARAT

Ameriketarat joan nahi dena, BARBIER, Doniane Garazikoari adreza dadila. *Agent d'émigration* bezala ezagutua da Gobernioaz. Eta nola, egun guziez behar baitu Bordelerat bere komisionentzat, *untzira no* lagundu ko edo lagun [illegible]

Chemin de fer Bayonne-Anglet Biarritz.

Marche des trains à dater du samedi 1er Août 1914.

Départ de Biarritz : 5 h. 30 ; 6 h. 30 ; 7 h. 30 ; 8 h. 30 ; 9 h. ; 9 h. 30 ; 10 h. ; 10 h. 30 ; 11 h. ; 11 h. 30 ; 12 h. 12 h. 30 ; 13 h. ; 13 h. 30 ; 14 h. ; 14 h. 30 ; 15 h. ; 15 h. 30 ; 16 h. ; 16 h 30 ; 17 h. ; 17 h. 30 ; 18 h. ; 18 h 30 ; 19 h. ; 19 h. 30 ; 20 h. ; 20 h. 30 ; 21 h. 30 ; 22 h. 30 ; 23 h. 20.

Départ de Bayonne : 6 h. ; 7 h. ; 8 h. ; 9 h. ; 9 h. 30 ; 10 h. ; 10 h. 30 ; 11 h. ; 11 h. 30 ; 12 h. ; 12 h. 30 ; 13 h. ; 13 h. 30 ; 14 h. ; 14 h. 30 ; 15 h. ; 15 h. 30 ; 16 h. ; 16 h. 30 ; 17 h. ; 17 h. 30 ; 18 h. ; 18 h. 30 ; 19 h. ; 19 h. 30 ; 20 h. ; 20 h. 30 ; 21 h. ; 22 h. ; 23 h. ; 24 h.

Trains supplémentaire selon les besoins du service. Tous les trains desservent Anglet et la Halte de la rue de France à Biarritz.

PÉLERINAGE NATIONAL A ROME

Sous la Présidence d'Honneur de

S. E. le Cardinal AMETTE, Archevêque de Paris

14-20 Septembre 1914

5 journées complètes à ROME. — Audience. — Visites en voitures et avec guides.

Aller par MARSEILLE (ascension à N. D. de la Garde) et la Côte d'Azur.— SAN REMO, GENES, FLORENCE, ASSISE, NAPLES (Miracle de Saint Janvier), POMPEI, LORETTE, BOLOGNE, VENISE, PADOUE, MILAN.

Retour par la Suisse (Ligne du Loetschberg).

Clôture définitive des inscriptions : 20 Août.

Ecrire au Bureau central du Comité national des Pélerinages, 33, rue du Chevalier de la Barre, Paris 18e (Basilique de Montmartre).

Compagnie des Chemins de Fer du Midi

Le nouveau guide illustré des Chemins de fer du Midi vient d'être mis en vente à l'Agence de la Cie, située au coin de la rue Edouard VII et du Boulevard des Capucines et dans les principales gares des réseaux du Midi et d'Orléans.

Cette publication artistique comporte tous les renseignements nécessaires aux voyageurs et aux touristes : des cartes et des plans de l'admirable région Pyrénéenne; des photographies des sites les plus impressionnants; une description des stations climatériques et thermales de plus en plus fréquentées, telles que Biarritz, St-Jean-de-Luz et la côte basque, Pau et les Eaux-Bonnes; Lourdes, Cauterets, Luz-St-Sauveur, Barèges et le Cirque de Gavarnie; Luchon et Superbagnères; Ax-les-Thermes et la vallée de l'Ariège; Font-Romeu, la Cerdagne Française, Montlouis et les gorges de l'Aude; Vernet-les-Bains et Amélie-sles-Bains; les gorges du Tarn, etc...

Ce guide, illustré de cent cinquante gravures et qui contient les nouveaux horaires, est précédé d'une chronique de M. Marcel Monmarché sur la route pittoresque des Pyrénées que parcourent les nouveaux services d'auto-Cars dont l'inauguration a obtenu un si éclatant succès.

CHEMINS DE FER DU MIDI

Circulation d'une Voiture Salon-Terrasse

ENTRE

Hendaye et St-Jean-Pied-de-Port

ET ENTRE

Hendaye et Bayonne

Il est rappelé au Public que jusqu'au 30 Septembre 1914, une voiture salon terrasse circulera entre Hendaye et St-Jean-Pied-de-Port dans les trains ci-après .

1° A L'ALLER

Train 74 départ d'Hendaye à 8 h. 57.
Train 3233 départ de Bayonne à 10 h.20.

2° AU RETOUR

Train 3234, départ de St-Jean-Pied-de Port à 16 h.10.

Train 37 départ de Bayonne à 18 h. 38 (du 25 Juillet au 30 septembre).

⁂

Une deuxième voiture salon terrasse circulera jusqu'au 30 septembre entre Hendaye et Bayonne dans les trains ci-après :

1° A L'ALLER

Train 30 départ d'Hendaye à 9 h. 49.
Train 72 départ d'Hendaye à 15 h. 45.

2° RETOUR

Train 25 départ de Bayonne à 12 h. 32.
Train 75 départ de Bayonne à 17 h. 47.

Consulter l'affiche spéciale pour tous autres renseignements.

Jules MONDRAN

2, place Notre-Dame, BAYONNE

Oihaleria mota guzietarik

OROTAN BAINO MERKEAGO

Porcelaines et Cristaux

MAISON FONDÉE EN 1842

Jules LACHIQUE

BAYONNE

GROS — DÉTAIL

Imprimerie A. FOLTZER

Livraison Rapide — Prix Avantageux

9, Rue Jacques-Laffitte

:: BAYONNE ::

TÉLÉPHONE 1.96

La plus importante, la mieux outillée de la Région

Le Gérant : E. DUBOURDIEU.

Imp. Lamaignere et Franco-Basque réunies.
A. Foltzer, successeur.

Etudes de Me CARRICABURU, notaire à Hasparren (Basses-Pyrénées et de Me PYTHON, avoué, demeurant à Clermont-Ferrand (Puy-de-Dôme), rue Blatin, 26.

Vente Bénéficiaire

DE

Divers Immeubles

en nature de

MAISONS D'HABITATION

COURS, JARDINS, PRAIRIES,

LABOURS, PATURES & BOIS

SIS A HASPARREN

Arrondissement de Bayonne (Basses-Pyrénées)

Dépendant de la succession bénéficiaire de Jacques Larroque.

L'Adjudication aura lieu le DIMANCHE 9 AOUT 1914, à 10 heures du matin en l'étude et par devant **Me Carricaburu**, *notaire à Hasparren.*

Sur les mises à prix ci-après :

1er lot. — Mise à prix : deux mille cinq cents francs, ci.......... 2.500 »

2e lot. — Mise à prix : cent cinquante francs, ci.......... 150 »

3e lot. — Mise à prix : quatre mille fr., ci.......... 4.000 »

4e lot. -- Mise à prix : seize cents francs, ci.......... 1.600 »

5e lot. — Mise à prix : mille francs, ci.......... 1.000 »

6e lot. — Mise à prix : neuf cents fr., ci.......... 900 »

7e lot. — Mise à prix trois mille francs, ci.......... 3.000 »

8e lot. — Mise à prix : mille huit cents francs, ci.......... 1.800 »

9e lot. --- Mise à prix : mille huit cents francs, ci.......... 1.800 »

10e lot. — Mise à prix : trois mille cinq cents francs, ci.......... 3.500 »

11e lot. -- Mise à prix : trois mille cinq cents francs, ci.......... 3.500 »

12e lot. - Mise à prix : cinquante francs, ci.......... 50 »

NOTA. -- Les frais de poursuites de vente seront payables en diminution du prix, ceux d'adjudication en sus.

Clermont-Ferrand, le vingt-sept juin mil neuf cent quatorze.

L'avoué poursuivant :
J. PYTHON.

Pour plus amples renseignements : S'adresser aux dits MMes Carricaburu et Python.

BIJOUTERIE « ESKUALDUNA »

F. de ALDAZABAL

EIBAR (Guipuzcoa)

Fabrication artistique en incrustations d'or, sur acier, avec gravures allégoriques, comme écussons, monogrammes, signatures et *bustes* d'émail s'adaptant à n'importe quel objet artistique de ce genre.

Urre eta zilhar, lan, mota guzikoak altzairuan.

HOTEL DES BASQUES & DU BEARN

Etienne ROUDET, 217, cours St-Jean

BORDEAUX

Ene etchea garatik hurbil, ehun metretan gurenetik, ongi ezagutua da AMERIKETARAT joaiten diren guziez; hemen segur dire izaiteaz beren harat hunaten egiteko behar dituzten, errechtasun guziak!

Janak eta kamberak merke; jenden ahalaren arabera.

PAPER ZOMBAITEN BALIOA

Parisen, Uztarilaren 24ian

OBLIGAZIONIAK

	lib.	sos
Frantziako 3 %, 100 ekoua.....	80	»
Indo-Chinako 3.50 %, 500 ekoua.	477	»
Argentinako (1886) 5 %, 500 ek..	509	»
Argentinako (1907) 5 %, 500 ek..	492	»
Bresilako (funding 1898) 5 %, 100	100	»
Bulgariako (1902) 5 %, 500 ekoua	480	»
Chinako (1908) 5 %, 500 ekoua...	479	10
Españako 4 %, 100 ekoua.......	86	10
Japoneko (1907) 5 %, 100 ekoua.	101	6
Rusiako (consolidé) 4 %, 100 ek..	85	12
Rusiako (1896) 3 %, 100 ekoua ...	69	»
Rusiako (1906) 5 %, 100 ekoua...	99	6
Serbiako (1895) 4 %, 100 ekoua...	73	10
Serbiako (1902) 5 %, 500 ekoua...	474	»
Suissako (1890) 3 %, 100 ekoua...	81	»
Turkiako (1890) 4 %, 500 ekoua .	430	5
Urugayko (1891) 3.50 %, 100 ek..	68	1
Amazone (1906) 5 %, 500 ekoua	286	»

	lib.	sos
Chili (1906) 4 %, 100 ekoua	89	16
Buenos-Ayreseko burdin bide, 4.50 %, 500 ekoua	345	»
Midi burdin-bide 3 %, 500 ekoua	416	»
Indo-Chine burdun-bide 3 %, 500	402	10
Damas-Hamah (priv)burdin-bide 4 %, 500 ekoua............	260	»
España Norte b.-bide 3 %, 500 ek.	359	15
Salonique-Const b.-bide 3 %, 500	279	10
Sao Paulo(1905) b.-b., 5 % 500 ek.	425	»
Smyrne-Cassaba (1894) burd.-bid. 4 %, 500 ekoua............	»	»
Smyrne-Cassaba (1895) burd.-bid. 4 %, 500 ekoua............	370	»
Victoria Minas b.-b. 5 %, 500 ek.	294	»
Midi-Italie b.-bide 4 %, 500 ek...	»	»
Nord-Brésil b.-bide 5 %, 500 ek..	62	»
N.-O. Brésil b.-bide 5 %, 500 ek..	109	10

AKZIONIAK

Azken sartzea libera	sos		
140	»»	Banque de France.........	4.550
29	5	Comptoir nat. d'escompte.	955
30	»»	Crédit foncier de France...	874
41	8	Société Marseillaise........	699
54	12	Crédit Lyonnais..........	1.460
16	2	Société Générale.........	708
51	7	Banque nat. Mexique.....	500
45	13	Midi burdin-bide.........	1.104
30	»»	Méridionaux-Italie	512
11	»»	Compagnie Gén Trans....	114 5

Azken sartzea libera	sos			
11	6	Messageries Maritimes....	144	10
		Wagons-lits (privilégiée)..	412	»
22	8	Chargeurs réunis.......	552	»
149	15	Canal Suez	4.600	»
18	2	Energie littoral Méditerr.	404	10
15	3	Printemps (privilégiée)...	304	»
64	3	Etablissement Duval.....	755	»
22	5	Petit Journal...........	418	»
69	2	Atelier & chant de la Loire	157	»
»»		Chantiers de la Gironde	754	»